

LITERATURAN MURGILDURIK

AHOZKO EUSKAL LITERATURA JENDAURREKO AZALPENA



IRAKASLEEN MATERIALA



Berritzegunea
B01 Bilbao - Abando

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA

AZALPEN TESTUAK

Azalpen testua edukiak transmititzeko testu-tipo nagusia dela esan daiteke ikas-irakaskuntza prozesuetan. Beraz, testu tipo honen produkzioan trebatu behar ditugu ikasleak ikasketa prozesua behar bezala burutu, eta kontzeptu eta eduki berriak era egokian bereganatuko badituzte, informazioaren muinera iritsi eta berori zuzen jaso eta azaltzeko. Horregatik, aurreko ikasmailetan landu bada ere, maila honetan ere jorratuko dugu testu-genero ezberdinen bidez.

Azalpen testua lantzeko funtsezkoa da testuinguruaren analisia egitea eta egiturari eta testu barruko ezaugarriei ere erreparatzea; izan ere ezaugarri horiek ikasleek ikasketen eremuan burutuko duten lanarekin lotura zuzena dute. Horrenbestez, hizkuntza-trebetasun bereziak landu beharko dituzte, beste testu-tipoen bidez ikasten ez direnak.

Gaitasun komunikatiboaren barruko lau azpi-gaitasunak landuko dira, hau da, gaitasun soziolinguistikoa, diskurtsiboa, linguistikoa eta maila apalagoan bada ere, gaitasun estrategikoa.

KOMUNIKAZIO EGOERAREN DESKRIBAPENA

PROIEKTUAREN IZENBURUA “Literaturan murgildurik”

PROPOSAMENA SORTZEN DEN MARKOAREN ZEHAZTAPENA

Hezkuntza literarioak, ikaslea sortzaile eta dastatzaile den neurrian, lan literarioetara era ludikoan hurbiltzen du, baina alderdi horrez gain, badu beste bat, formalagoa dena: garaiak, mugimenduak, generoak, egileen lanik ezagunenak ...aztertzeaz arduratzen dena, eta honetan hurbilketa formalagoa egiten da .

Ikuspegi honek laguntzen digu literatura bera gai moduan hartuta, ikerketa zientifikoa egiten, eta hori da, hain zuzen ere, gure proiektuaren helburua: Euskara arloan ahoz ahoko transmisioan guganaino iritsi diren adierazpenen ezaugarriak islatzea eta gaztelanian, berriz, kontakizunen antologia idaztea.

Ahozko testuari dagokionez erregistro jasoko ahozko komunikazioa jorratzeko aukera paregabea ematen digu jendaurreko azalpenak. proiektu baten jiran ahozkoaren hainbat alde landuko direlarik, era sistematizatuan, eduki kontzeptualen zerbitzura.

Hizkuntzen Trataera Baturako materiala da honako hau eta, esan bezala, gaztelania arlorako prestatu den ikastunitatearekin batera aurreko ikasmailan eta ondokoetan landu eta landuko diren azalpen testuak lantzea du helburu. Unitate honetan testu tipo horren barruko testu-genero jakin bat ekoiztuko dute ahozko azalpena, hain zuzen

Azalpen testua era bateratuan lantzeko bai gaztelania bai euskara arloen arteko zubiak eta bieie dagozkien aipamenak izango dituzte jardueretan zehar, arlo batean ikasitakoa baliagarria izango baitzaie bestean landuko duzuen hobeto ekoizteko.

PROIEKTUAREN ARDATZ BATERATUA

Tipoa : Azalpena

Eremua : Ikasketako hizkuntza. Hizkuntza literaturan

Gaia : Hezkuntza literarioa

HELBURU OROKORRAK

- Euskal eta erdal literaturaren adierazpenak ezagutzea eta baloratzea, gertakari komunikatibo/estetiko gisa eta baita bakoitzaren proiektzio eta errealitate historiko-sozialaren adierazpide moduan ere.
- Literatura ondare kultural gisa baloratzea.
- Adierazpen literarioen inguruan, hausnarketa egiterakoan, ikasketa eremuan, eta hor bereziki, erabiltzen diren dokumentazio bideak eta informazioaren trataera ezagutzea eta erabiltzea
- Emandako gaia garatzeko azalpen testuei dagozkien ezaugarriak ezagutzea eta erabiltzea
- komunikazio helburua, egoera eta hartzailearen ezagupena aintzakotzat hartuz, estrategia egokiak erabiltzea, informazioaren transmisioa, errazagoa eta eraginkorragoa gerta dadin.

H1: EUSKARA

AHOZKO EUSKAL LITERATURA JENDAURREKO AZALPENA

Lan proposamen honetan ikasleek taldeka bilduta **Ahozko azalpena burutuko dute** Ahozko euskal literaturaz.

Ahozko euskal literatura, gure kultura ondarea, ezagutuko dute unitate honen bidez. Horretarako, literatura ekoizpen asko entzuteko, irakurtzeko, aztertzeko eta abesteko aukera izango dute, batik bat Sarean topa daitezkeen baliabideetan oinarriturik. Beraz, Konpetentzia literarioa garatuko dute ahozko literaturaren ezagutza eta haren gozamenera bideratutako jardueren bidez. Horrekin batera, bai gaztelanian bai euskaran eskuratuko dituzten ezagutzek lagunduko diete ahozko azalpen egokia egiten ikaskideen aurrean.

KOMUNIKAZIO EGOERA

Gaia: **Ahozko euskal literatura**

Igorlea: **Ikasleak taldeka**

Hartzaileak: **Ikasgelako kideak, beste ikasgela bateko kideak**

Kanala: **Ahozkoa eta idatzizkoa (azalpenaren edukia ,eskema)**

Asmoa eta helburua: **Ikasgaitzat hartutako literatur edukiak era argi eta adierazgarrian transmititzea; eta literatur adierazpenak ondare kultural gisa baloratzea.**

Argitalpen lekua: **Ikasgela / beste ikasgela bat**

Eremua: **Ikasketako hizkuntza .Hizkuntza literaturan**

TESTU GENEROEN ERREPERTORIOA

Testu generoen errepertorioa	Ekoizpena <ul style="list-style-type: none">ermena	Ahoz idatziz
-Bertso -saioak	U	A
-Pastoralak	U	A
-Erromantzeak	U	A
-Testu liburuak	U	I
-Entziklopediak	U	I
-Dibulgazio artikulua	U	I
-Fitxa bibliografiakoa	E	I
-Hiztegi entziklopedikoa	U	I
-Eduki Mapak	U/E	I
-Hitzaldiak	U	A
-Eskola- azalpena	U/E	A
-Azalpenak	U/E	I
-Gidoia	E	A/I
-Ahozko azalpena	E	A

UNITATEAREN BIZKARREZURRA

MOTIBAZIOA ETA NEGOZIAIOA

0. Jarduera : Ados jarriko gara.
Ahozko azalpenerako gaia zehazten.

1.LAN-SEKUENTZIA AHOZKO EUSKAL LITERATURAZ GOZATZEN

1. Jarduera: Ipuinak eta kondairak irakurtzen eta eraldatzen.
2. Jarduera: Bertsoak entzuten eta jolasten.
3. Jarduera: Kantak eta eresiak. Koplak birmoldatzen.
4. Jarduera: Antzerkia. Pastoralak eta maskaradak.
5. Jarduera: Esaera zaharrak, atsotitzak.

2. LAN-SEKUENTZIA AHOZKO EUSKAL LITERATURA. AZALPENERAKO EDUKIA LANTZEN

6. Jarduera: Euskal literaturari buruzko datuak biltzen eta hautatzen.
7. Jarduera: Aukeratutako informazioa antolatzen.
8. Jarduera: Edukien koherentzia lantzen.
9. Jarduera: Informazioa ondo kohesionatuta azaltzeko baliabideak lantzen.

3. LAN-SEKUENTZIA AHOZKO AZALPENAK NOLA EMAN? EZAUGARRIAK

10. Jarduera: Ereduak aztertzen.
11. Jarduera: Ez-hitzezko ezaugarriak antzematen.
12. Jarduera: Azalpena ulergarriago egiteko zenbait estrategia lantzen.
13. Jarduera: Hizkuntza-erregistroa.

4.LAN-SEKUENTZIA JENDAURREKO AZALPENA BERA

14. Jarduera: Ahozko azalpenaren hezurdura prestatzen.
15. Jarduera: Praktikatzen
16. Jarduera: Jendaurrean azaltzen.
17. Jarduera: Ondo jaso ditugu entzundako datuak?

Autoebaluazioa Galdetegia

HELBURU DIDAKTIKOAK

1. Euskal literaturako adierazpenak ezagutzea.
2. Adierazpen literarioen inguruan hausnarketa egitea.
3. Sormenezko lanak (ipuinak, bertsoak...) idazteko interesa erakustea.
4. Irakasbide eremuan erabiltzen diren dokumentazio bideak eta informazioaren trataera ezagutzea eta erabiltzea.
5. Literatura ondare kultural gisa baloratzea.
6. Emandako gaia garatzeko azalpen testuei dagozkien ezaugarriak ezagutzea eta erabiltzea
7. Lana planifikatzea.
8. Azken produkzioari begira informazio egokia bilatzea eta aukeratzea.
9. .komunikazio helburua, egoera eta hartzailearen ezagupena aintzakotzat hartuz, estrategia egokiak erabiltzea.
10. Ahozko azalpenaren edukia zehatz eta ordenaturik ematea.
11. Informazio nagusiak eskematxoan bidez adieraztea.
12. Kohesio elementuak zuzen erabiltzea.
13. Azken ekoizpena argi azaltzea eta modu erakargarrian aurkeztea.
14. Talde lanetan eztabaidatzen jakitea.
15. Ikaskideek esaten dutena errespetatzea (lana eta iritziak)

EDUKIAK

KONTZEPTUZKOAK	PROZEDURAZKOAK	JARRERAZKOAK
<p>Azalpen testuak. Ahozko azalpenak</p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Ezaugarri orokorrak ➤ Ahozko azalpenaren ezaugarriak behinenak. ➤ Ahozko eta idatzizko azalpenek partekatzen dituzten ezaugarriak. ➤ Ezaugarri bereizgarriak. <p>Azalpen testuko ideien antolaketa. Koherentzia eta Kohesioa</p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Kohesio elementuak (lokailuak eta testu antolatzaileak) ➤ Testuaren kohherentzia 	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Ideien antolaketa testu koherentea lortzeko ➤ Kohesio elementuen erabilera egokia ➤ Informazioaren laburpena eskemak erabiliz ➤ Informazio-iturrien erabilera ➤ Informazio bilketarako teknikak ➤ Testuaren plangintza: edukiaren egituraketa, informazioaren adierazpena. ➤ Testuen berrikusketa eta zuzenketa 	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Besteen ideien adierazpenekiko jarrera irekia eta errespetuzkoa. ➤ Ahozko hizkuntzaren balorazioa. ➤ Norberaren testu idatzia berrikustearren garrantziaren balorazioa. ➤ Komunikazio-arauen balorazioa eta errespetua ➤ Azken ekoizpena argi eta modu erakargarrian aurkezteko interesa

<ul style="list-style-type: none">➤ Ordezkapen lexikala➤ Puntuazio zeinuak Azalpena idazteko egitura <ul style="list-style-type: none">➤ Deskribapen egitura Gaitasun soziolinguistikoa <ul style="list-style-type: none">➤ Erregistroa		
--	--	--

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. Euskal literaturako adierazpenak ezagutzen ditu.
2. Adierazpen literarioen inguruan hausnarketa egin du.
3. Sormenezko lanak (ipuinak, bertsoak...) idazteko interesa erakutsi du
4. Literatura ondare kultural gisa balioesten du
5. Emandako gaia garatzeko azalpen testuei dagozkien ezaugarriak ezagutu eta erabili ditu.
6. Lana planifikatu du.
7. Azken produkzioari begira informazio era egokian bilatu eta aukeratu du.
8. Informazio nagusiak eskematxoan bidez adierazi ditu.
9. Kohesio elementuak egoki erabili ditu
10. Komunikazio helburua, egoera eta hartzailearen ezagupena aintzakotzat hartuz, estrategia egokiak erabili ditu ahozko azalpena burutzeko.
11. Ahozko azalpenean informazioa zehatz eta ordenaturik eman du.
12. Azken ekoizpenerako material osagarria prestatu du.
13. Badaki talde lanetan eztabaidatzen.
14. Errespetatzen du ikaskideek egin eta esaten dutena.

EBALUAZIOA

Ikastunitate honetan landuko dena honela ebaluatu daiteke:

1.- Ikasleen jarduna, ahozko azalpena, ikastunitate bukaerako kontrol-txantiloaren bidez balora dezake irakasleak (puntuazioaren %40) (***) txantilo osagarria, haren ordez erabil daitekeena)

2.-Ikastunitatean jorratzen den curriculum gaiari buruzko galderak egin daitezke, proba baten bidez ikasleek berek bete dituzten eskemetatik ateratako datuak baliaturik. (puntuazioaren %40)

3.- Jarrera , interesa, eta literatura ondare kultural gisa balioestea (puntuazioaren %20)

*** *Iturria: Euskaljaintza. Maite Goñi*

Ahozko aurkezpenaren ebaluazioa

Hizlaria: _____

Garatuko duen gaia: _____

Aurkezpenaren antolaketa: Sarrera, garapena eta ondorioak/bukaera azaltzen dira	Oso ongi	Erdizka	Antolaketarik gabe
Moldea Jariotasunik gabe: motel edota errepikatuz, ideien arteko lotura falta, egitura sinpleegiak, esaldi laburregiak, adizki sinpleak, esaldiak bukatu gabe, hiztegi urria...	Oso ongi	Erdizka	Gaizki
Zuzentasuna Deklinabidea (mutiletaz) , aditza, morfologia (baino/baina), sintaxia (erdarakada ugari egituretan...)	Osa ona	Erdizka	Zuzentasun falta
Ahotsa (ozentasuna, ahoskera, doinua(k), tinbrea(k), abiadura	Oso egokiak	Erdizka	Desegokiak
Kinesia . Aurpegia (begirada, ahoa entzulearenganantz, keinuak) . Gorputza (itxura, kokapena, jarrera, keinuak, eskuak, mugimenduak)	Oso egokia	Erdizka	Ez da egokia
Aurkezpen denbora Aurreko guztia kontuan izanik, balioetsi ahozko aurkezpena 1etik 10era zenbakia biribilduz.	Egokia	Motzegia	Luzeegia
1 2 3 4 5 6 7 8 9			

UNITATE DIDAKTIKOAREN JARDUERAK BIDERATZEKO ORIENTABIDEAK

MOTIBAZIOA eta NEGOZIAZIOA

0. jarduera


Unitatearen helburuari eta azken ekoizpenari begira zer egin behar duten zehaztea du jarduera honek helburu. Ados jarriko dira eta ahozko azalpenerako gaia zehaztuko dute.

Informatika gela erabili beharko litzateke. Hala ere, irakasleak ordenagailua eta kanoia eraman litzake ikasgelara eta horman proiektatu (Internetarako konexioa ere beharko da).

0 jarduera honetako izar eta zinta horietan klikatu eta euskal literaturaren zenbait adierazpide entzun eta irakurriko dituzte.

Jardueraren amaieran hausnarketarako galdera batzuk dituzte. Aurretiaz irakurtzea komeni da, zer eskatuko zaien eta zer nolako jarduera den ikus dezaten.

Bestalde, oso luzea izan litekeenez ahozko euskal literaturaren genero eta azpigenero guztiei buruzko azalpena ematea, ikasleak hiruko taldetan antolatuko dira eta gai orokorra ataletan banatuko dute. Taldeka egingo duten ahozko euskal literaturari buruzko azalpenak atal komuna izango badu ere (sarrera), talde txiki bakoitzak atal bat jorratuko du eta hori gainontzeko guztientzat ikasteko gaia izango da. Modu horretan eduki kurrikularra garatuko dute, bide batez, azalpen testuak eta, bereziki, ahozko azalpena, lantzen dituztelarik.






Galderak erantzun ondoren, bi ariketa laburtxo dituzte, ideiak erlazionatzeko. Gaiari murgiltzea dute helburu eta aurretiaz dakitena azalera. Horretaz gain, 0 jardura honetan aurkeztu zaizkien ekoizpenak sailkatuko dituzte literatura-genero nagusiak biltzen dituen taulan. Hauxe da idatzi behako luketena:

GENEROA	
<p>LIRIKOA</p> <p>Barne sentimenduak adierazten dituen poesia mota.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Dekorazio olerkiak • Kopla zaharrak [Gabonetakoak (Marijesiak), Santa Ageda, San Joanetakoak, Kandelari egunekoak...] • XVIII.mendeko kantu lirikoak • Eresiak • Bertsolaritza • Kantak
<p>NARRATIBOA</p> <p>Pertsonaia batzuen barneko zein kanpoko hainbat gertakiren berri ematen duen testua. Istorio bat kontatzen du. (Ostadar)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ipuinak • Kondairak • Erromantzeak (Brodutzen ari nintzen, Atharratzeko Gazteluko kantua) • Esaerak, atsotitzak
<p>DRAMATIKOA</p> <p>Antzeztuak izateko sortutako testuak. Pertsonaia batzuen elkarriketa bidez gertaera batzuk azaltzen dira jendearen aurrean. (Ostadar)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Maskaradak, inauterietako tragikomediak... • Pastoralak

NEGOZIAZIOAN proposatzen zaizkien genero eta azpigeneroen eskema duzue ondokoa.



Iturria: www.hiru.com

Iturria: www.hiru.com

KOMUNIKAZIO EGOERA

<i>Ahozko euskal literatura: Atala</i>	<i>(talde bakoitzak landuko duen generoa edo azpigeneroa)</i>
<i>Igorlea</i>	<i>Taldeakideak (izenak).</i>
<i>Hartzailea</i>	<i>Ikastaldeko kideak</i>
<i>Kanala</i>	<i>Ahozkoa (idatzizkoa (eskemak banatuko baitituzte)</i>
<i>Asmoa (hautatu)</i>	<ul style="list-style-type: none"> ○ <i>Informatzea</i> ○ <i>Besteak konbentzitzea</i> ○ <i>Kontatzea</i>
<i>Erabilpen eremua (hautatu)</i>	<ul style="list-style-type: none"> ○ <i>Ikasteko eremuan</i> ○ <i>Komunikabideetan</i> ○ <i>Instituzioetan</i> ○ <i>Pertsona arteko harremanetan</i> ○ <i>Literaturan</i>
<i>Testu tipoa (hautatu)</i>	<ul style="list-style-type: none"> ○ <i>Narrazioa</i> ○ <i>Deskribapena</i> ○ <i>Azalpena</i> ○ <i>Argudioa</i>
<i>Testu generoa (hautatu)</i>	<ul style="list-style-type: none"> ○ <i>Dibulgazio artikulua</i> ○ <i>Fitxa bibliografiakoa</i> ○ <i>Hitzaldia</i> ○ <i>Eskola- azalpena</i> ○ <i>Dibulgazio artikulua</i> ○ <i>Antologia: erromantzeak, ipuinak...</i> ○ <i>Aurkibidea</i> ○ <i>Txostena</i>

1. LAN-SEKUENTZIA

Hasierako lan-sekuentziaren helburua literaturaz gozatzea da eta ahozko euskal literaturaren adierazpenen berri izatea. Horretarako, bost jarduera proposatzen ditugun arren, irakasleak erabakiko du den-denak egin ala genero batzuk bazter utzi, aipamen soila eginez, batez ere luze jo lezakeelako den-denak lantzeak.

Lehen lan-sekuentzia honetako zenbait jarduera burutzeko informatika gela ezinbestekoa izango da, esaterako, bigarren jarduera (bertsolaritza), laugarren jarduera (maskaradak eta pastoralak) eta bosgarrena (esaera zaharrak eta atsotitzak) burutzeko.

1. Jarduera: Ipuinak eta kondairak irakurtzen, aztertzen eta eraldatzen

Ipuin eta kondairetan murgilduko dira ikasleak.

Charles Perrault-en Txanogorritxo ipuina izango da abiapuntua. Jarduera honetan ipuin horren bi bertsio ezberdin aurkeztuko dizkiegu. Ikasleekin jardungo dugu, bertsioen artean egon dauden berdintasun eta ezberdintasunez.

Elkarrizketa bideratzeko zenbait galdera:

Zeintzuk dira ipuinean identifikatzen dituzuen pertsonaia berdinak? Zer ezberdintasun du ezagutzen duzuen bertsioarekin alderatuta? Otsorik bada? Bai, ez? Zer uste duzue?... Gero, talde handian, ipuinari lotzen zaizkion zenbait alderdiz jardungo dute.

Testuen helburuez jarduteko eskatuko diegu: Istorio bat kontatzen dute, entretenitzeko, ala istorio bat kontatzen dute zerbait irakasteko?

Kultura nolakoa ipuinaren ezaugarriak halakoak. Ipuinen (pelikulen, nobelen...) egokitzapenak egin dira kulturaren arabera. Goiko testuetan nola egin da egokitzapen kulturala? Nola islatzen dira kulturaren ezaugarriak? Txanogorritxo basoz inguraturiko herrialdean kokatu ohi dugu. Baina zein litzateke, esaterako, Poloan edo Ekialdean edo Hego Amerikako oihanetan biziko litzatekeen Txanogorritxo ipuineko otsoa? Eta ipuineko paisajea eta gainontzeko pertsonaiak?

Iturria: http://www.pnte.cfnavarra.es/eibz/materi1/literatur_sorkun/dbh1_ipuinak.htm

TXANOGORRITXO RAMALAN

Jose A. Tellaetxe Isusi

Begoña Montorioren itzulpena

I

Basamortuko haizeak kiribil luzetan askatu zituen adatsak. Neskatiaren inguruan trostan, goxoki harrotzen zituen hautsak, borobilak eta irudiak marrazten zituen zoruan, eta haren aurpegia atzamar ezti eta epelez laztantzen zuenean,

elezaharrak eta urrezko ameskeriak murmurikatzen zizkion, bai eta arropak astintzen, hegoak zabaldutako uso baten lumak bailliran.

—Begira nola egiten dudan hegan, Said! Txoritxo bat naiz, ikusten?

Sanaak barre algarak egiten zituen harrien gainetik korrika, jauzika, hanka bat goratuz, gero bestea, txaloka, oin puntetan jarrita eta besoak zabal-zabalik bira egiten zuen, edo airearekin borrokatzen zen hegan eraman ez zezan, tunikapetik sartu eta puxika baten modura puzten zuenean.

Nekaturik, zangoak gurutzatuta jezari ziren biak, haizea eta neskatila, haien azpian zeuden palmondo, zabaltza eta teilatu hautseztatuez harantzago ikusten zituzten fruta-arbolen berde minaz, hori eta laranja ziprztinduriko berde minaz gozatzeko.

Apirileko goiz zehazgabe hartan, Ramala gainean pausatua zen udaberria, isilik, nakar koloreko oihal baten antzera. Han aurrean ikusten zuten errepide handia Nablusera zihoala ari zitzaion kontaktzen neskatila lagunari, eta beste hura, apur bat eskuinera makurtzen zena, Jerikora zihoala. Handik joatekoak ziren familiako guztiak batera amama ikustera, autobusez, aitzak denbora apur bat hartzen zuenean.

Denbora luzea zen amamaren berririk ez zutela. Hark ez zuen telefonorik eta haren auzoko Bara ez zen jada merkatura jaisten astoarekin, hortaz, inork ez zien amamaren berririk ekartzen. Gauzak horrela, neskatilak amamari bisita egitea erabaki zuen, horretarako mendixkak eta muinoak zeharkatu behar bazituen ere.

Ilusioz beterik eta irribera, amamaren herrixkako arbolen ederra irudikatzen zuen, haien loreen kolore bizia, arkumetxo jaiio berrien goxotasuna.

Shadik, Ahmed Amik, Azizak eta Mahmudek, eskolako lagunek, planotxo bat marrazten lagundu zioten eta hura zeraman poltsikoan, arreta handiz tolestuta; alabaina, badaezpada ere, buruz ikasia zuen. Lagunak hasiera-hasieratik agertu zitzaizkion laguntzeko prest, bidaia haren asmoaren berri jakin zuteneko; askoz zailagoa izan zen, ordea, ama konbentzitzea joaten uzteko. Goiz hartan bertan lortu zuen baietza eta elkarrekin bildu zituzten amamarentzako opariak; gero, ondoan zeukan lastozko otartxoan gorde zituzten.

—Amama ikustera noa, Said; nahi duzu zure partetik zerbait esatea? Benetan, zuk esadazu nahi duzuna eta neuk kontatuko diot.

Eguerdiko argi betea nagusi zen Ramala tristearen aldiri eta herrigunean. Han zegoen neskatila jesarrita, eta haren alboan hondar-ekaitzetako haize zakar eta latza, duna ikaragarri bultzatzen ziona eta harkaitzak kiskali, landu, txikitu eta hauts fin bilakatzen zituena, harrotu eta kiribilka barreiatzen zuten hauts fina, gorri, arre eta beltza.

Nagituta, txistu luzea egin zuen haizeak, eta berehalako agurraren soina zuen hasperen batek inguratu zuen Sanaa.

Neskatilak, isilik, sekretuak zituen amets, eta ekialdeko haizea penaturik zegoen ezin zuelako atsedean gehiagorik hartu. Berandutzen ari zitzaion; basamortua karabanatan zeharkatzen zuten gizon misteriosuek neguan errezitaturiko ipuinak, kantuak eta otoitzak olatuen gainean uzteko garaiz heldu nahi bazuen, lehenbailehen abiatu beharko zuen itsasora heltzeko falta zituen kilometro luzeak ibiltzeko.

Atzean zuten maldatik behera abiatu aurretik, Sanaak otartxoa hartu eta ilea estaltzen zion hiyab gorria atondu ondoren, buruari jira egin zion azken aldiz Tenplu Sakratuaren kupulako urrezko dirdira begiradaz harrapatzeko, goxo eta amaigabea egin zitzaion une labur batez dirdira bizia egin baitzuen eguzkipean.

Azkeneko, neskak pausu biziz ekin zion bideari, amamaren herrixkara joan eta etxeratzeko agindua baino lehen bueltan egon ahal izateko segitu beharko zuen bidexkaren bila. Haizeak, marmarka, berarekin joateko keinua egin zuen, baina berehala oldartu zen eta zeruan gora egin zuen, ahapeka orro eginez, arin eta bizkor bidaia luzearen azken tarteari ekiteko.

Hemendik At *taldearen kanta entzungo dute*. Letra: www.musikazblai.com (CDan duzue)
Informatika gela erabiltzerik bazenute edo ordenagailua bera, klikatu [hemen](#) eta denek entzungo dute

Txanogorritxo dut izena
amonaren etxera noa
amonatxoa ikustera

Esaion gabian amatxori
kontutxo txiki bat kontatzeko
hik behar dunana dala hori
ohian goxo-goxo loak hartzeko

Eta berak ziur, gustu handiz
ipuin kaka bat, kontatuko din
esaion gogor, eztunala nahi
ipuin zikin hori kontatzerik

Txanogorritxo dut izena
amonaren etxera noa
amonatxoa ikustera

Ez dun hire amatxok asmatzen
ez zaizkin ipuin hoiek gustatzen
aspergarriak dira benetan
ez daukan hori entzun beharrikan

Eskazan beldur gabe beste bat
nazkatuta hagola erabat
gustatzen zaiana eskaion, txo!
Gustatzen zaiguna, TXANOGORRITXO!!

Txanogorritxo dut izena
amonaren etxera noa
amonatxoa ikustera

1. Jarduera honen barruan kondairak ere izango dituzte aztergai. Ipuinak eta kondairak zerk bereizten dituen zehazteko eska diezaiekegu. Definizioa bila dezatela entziklopedian eta jardueran idatzi:

Ipuinak:..... /Kondairak:.....

KONDAIRAK

EIBZren materialak dira (Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroa) eta Sarean dituzue. Bargotako aztiari buruzko kondaira labur batzuk aukeratu ditugu; hala ere, ipuin tailerrerako proposamen ugari dago bertan bai eta ikasleen produkzioak ere (1. eta 2.DBHko ikasleenak, hain zuzen ere).

<http://www.pnte.cfnavarra.es/eibz/materi1/bargota/index.html>

Irakasleak irakurriko du “Johanes herriak ikusita” kondaira, era egokian irakurtzeko behar diren ahots-erritmoaz, intonazioaz... kontura daitezen. Ondoren, ikasleak, taldeka bilduta, elkarri irakurriko dizkiote beste txatalak.

Irakurri ondoren, beste garai batean, 2025. urtean, esaterako, kokatuko dituzte pertsonaiak eta objektuak. Ea zer nolako pasarte dibertigarriak idazten dituzten! Testuak koadernoan idatziko dituzte eta gelan ikaskideen aurrean ozenki irakurri.

JOHANES HERRIAK IKUSITA



Bargotako Aztiaren izena gaur egunera arte, industrializazio garaira arte heldu da. Jendeak beti izan ditu hizpide pertsonaia honen abenturak eta ekintzak kandela baten inguruan biltzen zenean, edota ezkaratzetan, edo sutondoan epelean, edo ukuiluen goxoan.

Zaharrenek haren esanak kontatzen dituzte hodeiak erakartzeko eta haien gainean ibiltzeko; eta Vianako akelarreetara joateagatik berandu heltzen zela elizkizunetara; eta urruneko beste tokiekin eta pertsonaiekin lotzen zuten alegiak.

Ahoz aho heldu zaizkigun kontakizun hauei arretaz begiratzuz gero berehala konturatuko gara aztia nolakoa zen bertakoentzat: pertsona argia, bihotz onekoa, asmo txarrekoekin oso kritikoa, petrikiloa eta

aztia. Muga aldeko jendeak oso oroimen goxoa du Johanesi buruz.

Atentziona emateko modukoak dira Johanesek erabilitako trikimailuak Joan Otsoa salbatzeko. Joan Otsoa agramondarra zen eta Nafarroako Erresuma zaharraren independentziaren aldekoa zen. Johanes Erresumaren gainbegiradaren lekukoa izan zen.

Agian ez da errealitatetik oso urruti izanen Burgosko apezpikuaren eremuan zegoen Okako mendiei buruz egindako aipamena. Burgosen idatzi zuen lehen aipaturiko Guevarak bargotarrari buruz, eta mendi hauetan, agian, hobetu zituen petrikilo-ikasketak. Hil eta urte batzuk bereanduago, 1541ean, Kalagorriko inkisidoreek zigorra ezarri zieten lur hauetako hamabost pertsonari; aipatzekoa da haietako hamaika Johanes bezalako elizgizonak eta petrikiloak zirela.

JOAN OTSO

Bele-saldoa

Garai oso latzak ziren Nafarroan 1500. urte inguruan. Agramondarren eta beaumontarren mugimenduek bi zatitan zuten banatuta erresuma. Punicastroko gazteluko hondarretan zegoen ezkutatuta Joan Otsoa, kapitain agramondar bizar gorria. Goiz batean Azueloko Orratzeko tontorreraino igo zen, hura baitzen oso toki estrategikoa mandazainen bat erasotzeko.

Artzain batek abisua eman zion Torralbako Arkabuzari Kofradiari eta isilpean antolatu zuten haren atxilotzea. Harrapatzeko momentuan bele-saldo batek karraka egin zuen eta agramondarra hori entzutean bidexka eta sakan guztiak gurutzatu eta aztiaren etxean ezkutatu zen.



Esprontzedako artzaina eta katua

Esaten omen da Joan Otsoak ihes egiten ziola bideetako begiraleei Johanesen laguntzari esker. Johaneseekin itxi omen zen ukenduen gela sekretuan eta animalia bihurtu omen zen. Biharamunean Esprontzedako artzain bat erotu beharrean ibili omen zen katu beltz handi baten atzean, ardi batzuk hil baitzizkion. Makilkada gogor bat eman zion eta gero bertan hiltzeko beste bat, baina katua ziztu bizian atera zen Kodes aldera.

Orduan ohartu zen bere aita zenak esandakoaz: "Aztiei eta haien kuttunei kolpe kopuru bakoitia eman behar zaie".

Kapa ikusezina

Batzuek kontatzen dutenez, behin bizargorria joan omen zen eliza eta udalaren artean dagoen ataritik Santa Luzia aldera kapa batean babesturik. Kapa hori Johannesena zen eta eramaten zuena ikusezin bihurtzen zuen.

2. Jarduera: Bertsolaritza.



Bertsolaritza gure kulturaren ondare baliotsua da. Bertsoak entzuteko eta beraiekin jolasteko aukera izango dute jarduera honetan. Lehendabizi bertsoak entzungo dituzte eta gero bertsoekin jolasten arituko dira.

Baliabideak:

www.bertsozale.com

(Jolasak) <http://www.bertso-eskolak.com/jolasak1.htm>

Taldeka, www.bertsozale.com helbidera joko dute eta ezkerreko zutabearen *bertsoak* aukeraren gainean klikaturik, *entzuteko bertsoak* hauta dezatela esan. Bertan, bertsolaria, doinua, jardun mota...ezberdinak aukera ditzakete. Entzun, disfrutatatu eta ikastea da jarduera honen helburua!

Bertsoak entzuten diharduten bitartean, txantilo bat betetzeko eskatuko diegu. Behaketa orria da.

Entzuteko bertsoak atalean:

Entzuteko bertsoak

Taldea: **Taldekideak:** **Eguna:**

Entzundako bertsoaren egilea	Doinua	Neurria	Gaia	Bestelako datu jakingarririk?	Zuen iritzia



Talde handian hitz egingo dute gero gehien gustatu zaizkien bertsoez. Esan gustukoena aukeratzeko eta gainontzekoei azaltzeko hautaketaren zergatia. Horretarako, koadroan adierazitako datuez balia daitezke (bertsolaria nor, doinua, neurria, zein herritan edo zein emanalditan bota zuen, eman duten iritzia...).

Jarduera honetako bigarren atalean ikasleak izango dira bertsolari. Jolasa da nagusi. Interneteko helbidera joko dute berriro eta *jolasak* aukeran sartuko dira. Honako hauek dira bertsoekin jolasteko dituzten aukerak:

Hitzontzia	Bakoitzari berea
Nahas-mahas	Nahas-mahas
Kopla doinuan	Bakarka
Zortziko txikian	Binaka
Zortziko handian	Txapelketak:
Hamarreko txikian	bakarka
Hamarreko handian	Txapelketak:
Neurri luzean	binaka

Aurrekoan bezala jardungo dute honetan ere:

Taldea: **Taldekideak:** **Eguna:**

Landutako bertso mota	Zuen iritzia	Nola jardun duzue? Emaizta onak lortu dituzue?
-----------------------	--------------	---



3. Jarduera: Erromantzeak, kantak eta eresiak

Jarduera hau burutzeko informatika gela ez da ezinbestekoa. Hala ere, erabiltzerik balego, hainbat hobe. Musika aparailuarekin nahikoa den arren, irakasleak abestien fotokopiak atera beharko ditu. Aukerarik balego, ordenagailu eramangarria eta kanoia oso baliabide egokiak izan litezke.

Aspaldiko garaietan, gaur egun bezalaxe, jazotzen ziren gertaerak, hilketak, familia arteko liskarrak, maiteminduen arteko gorabeherak... Horietako batzuk baino ez zaizkigu heldu, ordea. Nola, baina? Garai hartako euskaldunak, beste baliabiderik ezean, gehienek ez baitzekiten idazten, zenbait generori buruzko daturik garrantzitsuenak kantuz, ahoz aho, erromantze izeneko poema narratiboen bidez, joan ziren zabaltzen . (Ostadar)

Gaur ezagutzen ditugun kantu epikorik zaharrenak XV. mendekoak dira, eta gehienetan orduko ahaide nagusien arteko borroken berri ematen zaigu. Erdi Aroko kanturik ezagunenetakoa dugu Bereterretxeren kanta. Ahoz transmititua beaumontarren eta agramondarren arteko liskar eta borroken lekuko da. Kanta honek hilketa bat salatzen du Leringo Konde beaumontarrak etxetik irtenarazten du Bereterretxe eta gero traizioz hiltzen.

Bereterretxe Bereterretxe (Erramun Martirikorena) Bereterretxe (Mikel Laboa)

letra

Haltzak eztu bihotzik,
ez gaztanberak ezürrik;
enian uste erraiten ziela Aitunen semek gezürrik.

Andozeko ibarra
ala zer ibar luzia!
Hiruretan ebaki zaitan armarik gabe bihotza.

Bereterretxek oheti
neskatuari eztiki:
- Abil eta so'gin ezan gizonik denez ageri.

Neskatuak berala

ikusi zion bezala:
hirur dozena bazabiltzala borta batetik bestera.

Berterretzek leihoti
jaun kuntiarri goraintzi:
ehün behi bazereitzola bere zezena ondotik.

Jain kuntiak berala
traidore batek bezala:
- Berterretx, bortala, üzüliren hiz berala.

- Ama, indazüt atorra,
mentüraz sekulakua,
bizi denak ohit ükenen dü Bazko-gaiherdi-ondua.

Mari-Santzen lasterra
Bost-mendietan behera!
bi belañez herresta sartü da Lakarri Buztanobira.

-Buztanobi gaztia,
ene anaie maitia,
hitzaz hunik ezpalinbada, ene semia jua da!

- Arreba, hago ixilik,
ez, otoi, egin nigarrrik;
hire semia bizi ba-da, Mauliala dun jua rik.

Mari-Santzen lasterra
jaon kün tiaren bortala!
- Ai, ei eta, jaona, nun dü zie ene seme galanta?

- Hik bahiena semerik
Berterretxez besterik?
Ezpeldoï altin dün hilik; abil, eraikan bizirik.

Ezpeldoïko jentia k
ala sentimentü gabiak!
Hila hain hü llan üken eta deüs ere etzakienak!

Ezpeldoïko alaba
Margarita deitzen dena;
Berterretxen odoletatik ahürkaz biltzen ari da.

Ezpeldoïko bukata
ala bukata ederra!
Berterretxen atorretarik hirur dozena ümen da.

letra

Mikel Laboa. Berterretxe

Jarduera honetan, lehendabizi erromantze beraren bi bertsio entzungo dituzte (norberak baloratu beharko du osorik jarri ala ez, ikastaldearen arabera, noski). Ondoren, abesti herrikoiak entzungo dituzte, koplak, hain zuzen ere. Ikasleek beste letra batzuk asmatuko dituzte. Koplak sortzen ahaleginduko dira.

Taldeka arituko dira. Lehendabizi, euskal kanta entzun eta letra irakurtzeko baino ez eskatu. Ondoren, proposatzen dizkiegun abestietako bat hautatu eta letra aldatzen saiatzeko esan.

Besteak beste honako hauek izan litezke ikasleen abestien gaiak: ahozko literatura, unitate honetan egin behar duten azken ekoizpena, jendaurreko azalpena, Ikastetxea, ikasgelako lagunak, nobio eta nobiak... Beste gairik bururatzen bazaie ere, onartu. Letrak idatzi eta ikasgelako horman jarriko dituzte ikusgai.

Kantak

(Iturria: Hiru truku "zazpi nobio")

1. Neska soldadua (letra)
2. Izar ederra- (letra)
3. Amaren- (letra)
4. Eguzkia- (letra)

letrak

NESKA SOLDADUA

GAZTEAK KANTUAN TA
ZARRAK ERAGUSIAN,
HORI DA PASATZEN DANA
BARDIN MUNDU GUZIAN.

ETXETIK URTEK NEBAN
MAIATZEKO HILIAN,
HAMASEI URTEREKIN,
NEURE TXORAMENIAN.

SOLDADU SARTU NINTZAN
AGORRAREN BOSTIAN,
KABO EDO SARJENTO
IZATEKO USTIAN.

NI LAKO FORTUNIA
NORK DU HARRAPATU?
HAMAIA HILABETEKO
SARJENTO NONBRATU.

URTE BETE BAIÑO LEHEN
NINTZAN TENIENTE,
REJIMENTUTIKAN BE
NINTZALA AUSENTE.

REJIMENTU BI IZAN DITUT
HAMAR URTE HONEETAN:
ANJEL DE ONDASETAN
BUENAS AIRESETAN.

NERAU EMAKUMIA
OFIZIALIA,
LETRARIK ESKOLARIK
BATERE GABIA.

AGUSTIN ANTONIO
IZAN DA NEURE IZENA.
HORI AITU DEZUTENOK
EZTA NEURE IZENA.

ORAINXE DA DENBORIA
IZENA MURATZEKO,
AGUSTINA ANTONIA
NAIZELA ESATEKO.

BATETIK LAU BALAZO,
BESTETIK ENFERMO,
JAUNAREN ABIXUAK
HOIXEK DITUT KLARO.

MOJA SARTZERA NOA
KOMENTU BATERA,
JESUSAREN ESPOSA
BETIKO IZATERA.

HAMAR URTIAN ERREGE
SERBITU DETALAKO,
DOTEA GERTU DAUKAT
MOJA SARTUTZEKO.

ADIOS, AMA NEUREA
PROBINTZIANIA,
ONGI LASTIMATZEN NAIZ
ZU DESPEDITZEA.

BAINA ORAINDIK ERE
BIZI NAIZEN ARTEAN
GOGOAN IZANGO ZAITUT
NEURE BIHOTZEAN.

IZAR EDERRA

Izar ederrak argi egiten dau
zeru altuan bakarrik;
ezta bakarrik, lagunak ditu
Jaun Zerukoak emonik.

Zazpi aingeru aldean ditu
zortzigarrena gaixorik;
zazpi mediku ekarri deutsez
India-Madriletatik.

Harek igarri, harek igarri
nondik dagoan gaixorik:
-Amore-minak badituz onek
desentrañetan sarturik.

-Guzurra diño mediku honek.
Nik eztot amore-miñik.
Amore-miñak badaukadaz be
desentrañetan sarturik.

Gaur arratsean hilgo naz eta
etorri gorpu-ondora,
errosario zuri eder bat
esku artean dozula.

Neu enterretan naroenean
igongo dozu korura,
handixek bera salto egingo'zu
Birjina Amaren ortura.

Larrosea ta krabeliñea
hartungo dozuz eskura,
jente guztiak esan daiela
neure lutua dozula.

Aingerutxoak esaten dabe
Salbean Abe Maria,
gero guztiok gozatu daigun
zeru altuan gloria.
Amen Abe Maria.

AMAREN

munduan badago
gizon kanpo-ederrez
neu aserik nago.

Sagar bat erreta ta
beste bat gordinik
ai ze bizimodua
gastaten dodan nik.

Txikitxu politori
zer dozu negarrez?

Aitek tabernarako
dirurik emon ez.

Aitek tabernarako
dirue emoteko
berak hartuko leuke
nok emon baleuko.

Etxetxo zar bat dago
Barazar ganean
etxako urik sartzen
aterri danean.

Errekara yoanda
begi biek bota
bat baino eztekonak
biek zelan bota.

Arin arin eiten dau
soloan erbiek
hutsik egiten ditu
puntuen erdiek.

Altuen San Bernabe
bajuen Gordobil
Mekoletako plazan
tanboliñe dabil.

Gaztea nintzanean
denpora batean
enintzan sosegatzen
ezkondu artean

EGUZKIA

Eguzkie yoan da
bere amagana
biher etorriko da
denpora ona bada.

Astotxo bat baneuko
buzten zuriegaz
Ermure yoateko
gona gorriegaz.

Amorebidetako
bizi-alargune
bakarrik egon barik
hartuixu lagune.

Hamalau zapatarik
ein dabe juntea
zeinek lenago yosi
zapata puntea.

Tiriki tauki tauki
mailuaren hotsa
hamalau hargin baino
hoba dok harotza.

Agure buruzuri
oilanda zalea
nok irakatsi deutsu
gurera bidea?

Gazteak badakizu
zelan dantzan egin
burua gora-gora
kaderai eragin.

Eresiak eta gudu kantuak

XV. mendean, profazadoreak (plazaz plaza eta herriz herri ibiltzen ziren emakume abeslariak) eta erostagileak (gudu-kantuak eta eresiak egiten zituzten kantariak) izan ziren ahozkotasanaren enbaxadore nagusiak.

Sarean, Interneten bidez irakur ditzakegu eresi eta kantu zahar horiek: honako helbide honetan: <http://klasikoak.armiarma.com/herri.htm>

4. Jarduera: Herri-antzerkia. Pastoralak eta maskaradak

Ordenadorea eta kanoia beharko dira arbelean proiektatzeko. Bestela, informatika gela. Antzinako tradizioko antzerkia jorratuko dute jarduera honetan. Horretarako, maskaradei buruzko audioa entzun eta maskaradei eta pastoralei lotutako bi bideo txatal ikusiko dituzte.

Informazioa arreta handiz ikusi eta entzungo dute; izan ere, bideoak zubereraz daude, beraz, zail samarra gertatuko zaie dena ondo ulertzea. Hala ere, ahalegina egiteko eskatuko diegu. Lehendabizi, irakurri egingo dute informazioa biltzeko taula, zer nolako datuei erreparatu behar dieten kontura daitezen. Ondoren, audioak eta bideoek ematen duten informazioaz balia tuta taula betetzeko esango diegu. Dena den, taulako datu guztiak idazten laguntzeko beste informazio iturri hauetara ere jo dezakete:

http://www.hiru.com/euskal_literatura/euskal_literatura_00150.html

<http://www1.euskadi.net/Harluxet/hiztegia.asp?sarrera=pastoral> (informazioa labur-labur)

http://www.juandegaray.org.ar/fvauj/docs/Teatro_Vasco (GAZTELANIAZ)

Baliabideak:

Audioa : [maskaradak-entzumena](#)

Bideoak: [Pastorala. Santa Engrazi](#) (<http://www.itelebista.com/eu/bideo/274>)

[Maskarada. Mauleko maskarada](#) (<http://www.itelebista.com/eu/bideo/1168>)

Maskarada

Pastoralak



4. Jarduera. Datuak biltzeko txantiloia

EZAUGARRIAK	MASKARADAK	PASTORALAK
Noiz antzezten dira?		
Non?		
Nolako jaiak dira?		
Europan bada besterik?		
Zer erakusten du?		
Zein tokitan antzeztu ohi dira?		
Pertsonaiak		
Ezaugarriak		
Atalak		
Sinbologia		
Janzkera		
Zein da maskaradako pertsonaiarik garrantzitsuena?		

5. Jarduera: Esaera zaharrak, atsotitzak

Honako jarduera hau burutzeko, ezinbestekoa da ordenadore gela

Gotzon Garatek dioenez “Folklore eta etnologia. Herriaren antzinateko uste, jokamolde eta tradizioak. Gaitzak sendatzeko otoitzak, sorginkeriak eta aztikeriak, erlijioari buruzko iritziak eta jaiak eta gure arbasoek kontatzen zituzten ipuinak. Mitologiaren aztarnak eta naturalezari buruzko sineskerak ere iradokiak aurkitzen ditugu esaera zaharretan” ([27173 Atsotitzak - Refranes - Proverbs – Probervia](#)) Errefrau, atsotitz eta esaera zaharretan Herriaren jakinduria labur-labur adierazia biltzen da.

Zer egingo duten? Ikasi, ikusi eta jolastu. Jakintza ikastolako ikasleek Maite Goñi irakaslearen gidaritzapean sortutako ariketak dira jarduera honetan proposatzen zaizkienak. Bikoteka bilduko dira eta atsotitzak lantzeko aukeretan murgilduko. Gehien gustatu zaizkien hamar atsotitzak idatziko dituzte (esan, ahal izanik, esanahia adierazteko).

Baliabidea: <http://euskaljakintza.blogspot.com/atsotitzak>

Atsotitzei buruzko informazio gehiago: <http://www.ametza.com/bbk/htdocs/garate.htm>

	atsotitza	esanahia
1		
2		
3		
4		
5		
6		
7		
8		
9		
10		

1. Lan-Sekuentzia bukatu da. Bost jarduera burutu dituzte ahozko euskal literaturaren inguruan. Entzun, ikusi, irakurri eta jolastu egin dute. Egin

dituzten jarduera eta ariketetan oinarriturik, sailkapen moduko bat egitea proposatu diegu:

Ahozko azalpena egingo duten taldekideak bildurik, genero eta azpigenero bakoitzari 1etik 5erako puntuazioa jarriko diote: gehien gustatu zaienari 5 eta gutxien gustatu zaienari, berriz, 1.

Gero, talde handian bilduta, ahoz azalduko dute balorazioa. Interesgarria izan liteke, era berean, zergatia adieraztea.

Azkenik, irakasleak adieraziko ditu ikastaldekoen emaitzak, gelan zein izan den generorik gustukoena jakiteko.

PUNTUAZIOA 1ETIK 5ERA	ZER IZAN DA INTERESGARRIENA?
Bertsolaritza	
Kondairak	
Ipuinak	
Pastoralak eta maskaradak	
Abestiak, koplak eta baladak	
Esaera zaharrak, atsotitzak	

2. LAN-SEKUENTZIA AZALPENERAKO EDUKIA LANTZEN

Ahozko euskal literatura lantzen aritu dira aurreko jardueretan. Oraingoan azalpenerako edukia antolatzen hasiko dira, komunikazio egoeraren ezaugarriei erreparaturik. Horrenbestez, lan sekuentzia honetan azalpenaren eskema eta jendaurrean azalduko dutenaren zirriborroa gauzatuko dituzte, koherentzia eta kohesioa lantzen dituztelarik.

6. Jarduera: Datuak biltzen eta hautatzen. Azalpenaren helburuak zehazten.

Azalpenerako behar dituzten datuak bildu eta idatziko dituzte, negoziazioan (0 jarduerako fitxan) zehaztutako datuak abiapuntu izanik.

0 jarduerako fitxa berreskura dezatela. Taldeka bildu eta informazioa jasoko dute, 0 jarduerako fitxan (Komunikazio egoera zehaztekoan) adierazitako datuak kontuan harturik,. Bilketa modu egokian egiteko txantilo hori erabiliko dute.

INFORMAZIOA BILTZEKO PROZEDURA

Idatzi beheko koadroan ZER JAKIN BEHAR DUZUEN eta, zehazki, zeri BURUZKO INFORMAZIOA BILDU BEHAR DUZUEN.

Saiatu informazio iturri ezberdinetara jotzen:

- Liburutegiko KATALOGO OROKORRA kontsultatu, lanaren gaiari lotzen zaizkion liburuak bilatu ondoren:
Aukeratu egokienak iruditzen zaizkizuen bizpahiru izenburu
Berriz aztertu aurkibidea eta erabaki hautatutakoak baliagarriak diren ala ez.
Erabilgarririk topatuz gero, bete beheko taula
- Liburutegiko TESTU-LIBURUEN atala kontsulta dezakezue:
Hautatu gizarte gaiei loturikoak
Berriz aztertu aurkibidea, baliagarriak izango zaizkizuenak hautatu eta idatzi beheko taulan.
- ENTZIKLOPEDIA TEMATIKOAK ere azter ditzakezue.
Unitatean proposatzen diren WEB HELBIDEETARA jo:
Hautatu bizpahiru orri
Aztertu edukia baliagarria zaizuen ala ez erabakitzeko
Baliagarria bada, informazioa idatzi beheko taulan
- WEB HELBIDEETARA jo:
Honako helbide hauetan topa dezakezue beharko duzuen informazioa
 - <http://www.idazleak.org/historia.htm>
 - http://www.hiru.com/euskal_literatura
 - <http://klasikoak.armiarma.com/herri.htm>
 - <http://www.basqueliterature.com/basque/historia>
 - http://eu.wikipedia.org/wiki/Euskal_literatura
 - <http://www.bertsozale.com/liburua/euskera/sarrera/sarrera1.htm>

ZER JAKIN NAHI DUGU?	
<hr/>	
ZERI BURUZKO INFORMAZIO ZEHATZA JASO BEHAR DUGU?	
<hr/>	
INFORMAZIO ITURRIAK	ZER informazio dago bertan?

7. Jarduera:Aukeratutako informazioa antolatzen


Jarduera honetan aurreko jardueran bildu duten informazioa eskema bidez adieraziko dute. Ondoren, jendaurrean adieraziko dutenaren lehenengo zirriborroa idatziko dute.

Komunikazio egoera deskribatzen duen fitxa erabili ikasleekin eta hitz egin bertan adierazitako datuez. Gogorarazi bertan adierazitakora egokitu beharko dutela azalduko duten edukia eta horretaz gain, hartzaileen ezagutza maila, erabilpen-eremua, komunikazio asmoa, denbora... kontuan hartu beharko dituztela azalpenaren eskema burutzeko. Bestalde, komenigarria da ideia nagusiak eta bigarren mailakoak ondo bereizi beharko dituztela adieraztea.

Taldeka egingo dute lan. Hautatutako informazioari erreparatzeko esan. Baliagarria izan dakieke honako txantilo honetan ematen dizkiegun argibideen arabera eskema gorpuztea. Bertan, era berean, zehaztu dezakete zein informazio iturritatik jaso dituzten datuak.



Eskema: (Azalpenaren hiru atalak)



Eskema burutu ondoren, lehenengo zirriborroa idatziko dute. Kontrol zerrenda bat proposatzen zaie zirriborroa idazteko. Lehenengo zirriborroa denez, zuzenketa ugari egin behar izango dute.

7. Jarduera: Azalpen testuaren zirriborroa idazteko kontrol-zerrenda

ZIRRIBORROA
Zirriborroa idazten hasi aurretik
<ul style="list-style-type: none">• Bildutako ideiak birpasatu• Garrantzitsuak eta esanguratsuak baino ez hautatu.• Ez erreplikatu.

ZIRRIBORROA IDAZTEKO

- Ideiak antolatu gidoiaren, eskemaren arabera
- Ideiak paragrafoka antolatu, Ideia nagusi bakoitzeko paragrafo bat.
- Paragrafoen hasieran saiatu testu antolatzaile egokiak jartzen.
- Paragrafoak aurrekoarekin eta ondokoarekin modu koherentean lotu
- Zuen hitzak erabili
- Ez eman iritzirik.

Zirriborrea idatzi ondoren, Egiatzatu:

- Ondo ulertzen da?
- Hautatutako gaiaren hariari ondo eusten dio?
- Gaia hondo aipatzen da eta ondo garatuta ageri da?
- Koherentziarik badu?
- Interesagarria da?

8. Jarduera: Edukien koherentzia lantzen.

Azalduko dutenaren bizkarrezurra, eskema, egin eta zirriborrea idatzi dute dagoeneko. Orain, informazio hori ondo antolatu duten egiaztatu behar dute.

Koherentzia zer den azalduko diegu lehendabizi. Eskatu ikasleen materialetan duten aurkezpen txatal laburtxo horretako informazioa arretaz irakurtzeko eta egiaztatu ulertu duten ala ez, jardueran proposatzen den deskribapen egitura lantzen hasi aurretik.

Komenigarria da informazio osagarri gisa, azalpen testuen egituren deskribapen laburra izatea. Hona hemen:

Azalpen testua

Egile batzuen ekarpenak laburtuz, ondoko **ezaugarriak** ditu:

- Komunikazio xedea ulermena zein ezagupena zabaltzea da.
- Komunikazio xede honek hizkuntza marka batzuk eskatzen ditu: hiztegi teknikoak, orainaldiaren ardatza, izaera inbertsonala...
- Lehentasunezko erabilera eremuak Ikaskuntza zein Komunikabideen eremua dira.

Testu generoak:

Modalitate zientifikoa: artikulua, monografiak, adierazpenak, kurtsoak, tratatuak....

Modalitate didaktikoa: testu liburuak, eskolako azalpenak....

Modalitate dibulgatiboa: aldizkarien artikulua, egunkarien eranskinak, entziklopediak, hitzaldiak....

Azalpen testuen **gainegitura** honako hau da:

1. Sarrera

2. Garapena
3. Ondorioa

Baina **garapenari dagokionez, koherentziaren barnean** ideiak elkarrekin lotzeko eta testua era egokian antolatzeko, **zenbait eredu** ezberdin aurki ditzakegu:

1. Deskribapen Egitura.

Testuen informazioa antolatzeko egitura deskriptiboa oso erabilgarria da, datuak edo elkarrekin lotutako informazioak aurkezten ahalbidetzen baitu. Bi osagarri bereizten dira egitura honetan:

a) Esaldi antolatzailea.

b) Objektua, ideia edo gertaera deskribatzen dituzten propietateak. Propietate horiek modu ezberdinez antolatu daitezke: informazio berritik lehendik dakigunera, handienetik txikienera, hurbiletik urrunera, orokorretik zehatzera...

2. Hurrenkera Egitura.

Hurrenkera egitura egitura deskriptiboaren mota bat da; izan ere, antzeko osagarriak ditu (esaldi antolatzailea zein propietateen zerrenda) baina osagarriak esaldi, azpigai edo tituluak zehaztutakoaren arabera antolatzen dira.

3. Egitura Konparatiboa

Bi objektu, gertaera edo ideien edo gehiagoren arteko antzekotasunak zein ezberdintasunak adierazten dira. Horretarako, bi eskema mota erabili ohi dira:

- a) Konparazio "kontrajarriak": egituran kategoria bakoitza bere aldetik aztertzen da, objektuak alderatzen.
- b) Konparazio bereiztuak: objektuak banan-banan aztertzen dira eta konparazio terminoak paraleluki agertzen diren bi testu sortzen dira.

3. Kausa/ondorio Egitura.

Egitura honek gertaera edo egoera bat eta haien kausak edota ondorioak adierazten ditu. Kausa/ondorio egitura argudio testuan integratzen da sarritan. Honako testuak sortzeak ideien edo gertaeren arteko kausa/ondorio harremanak nabarmentzea eskatzen du.

5. Arazo/konponbidea Egitura.

Egitura mota honetan bi zati bereizten dira:

- 1.- Hasieran, esaldi antolatzailearen bidez, arazoa adierazten da,
- 2.- Gero, konponbideak eskaintzen dira. Arazoaren planteamendua galdera baten bidez ixten da sarritan. Egitura mota hau kausak adieraziz osatzen da.

Hauxe da deskribapen egiturari eusten dion testua behar bezala ordenaturik:
Santa Ageda bezperako ohiturari buruzko erreportaje txikia da. Ohituraren jatorria, zertan gauzatzen den eta Ageda deunaren historia.

Legearekin konplitud koplaka

Iturria: www.ikasbil.net

Euskal Herriko hainbat txokotan ohitura errotua da gaurko egunez koplak kantari eskean irtetea.

Hirietan zein nekazal guneeetan itxura arrunt ezberdina du usadioak; jaiaren muina igualtsua da, ordea, toki guztietan.

Makila handi-handiak esku artean, iraganetik jasoriko koplak zaharrak ezpainetan eta eskean jarduteko hitz dotoreak airean... Santa Ageda bezpera.

Bizkaiko, Gipuzkoako, Lapurdiko eta Nafarroako nekazal giro euskaldunetan, ohitura zaharra da gaurko egunez etxez etxe kantari ibiltzea. Eta arrunt errotuta dago kantatu ostean eskean egitea ere. Dirua eskatzen da batzuetan, edo eta barrena asetzeko janaria eta edaria beste askotan.

Euskalduntasuna baserri girotik haratago eramateko irrikak hirigune urbano eta modernoetara ere eraman du azken urteotan usadio hori. Kasu guztietan xumea da, hala ere, jaiaren izaera. Koplak zaharrak kantatzen dituen abesbatza —lurraren kontra darabiltzat kolpeka makila handiak —, bertsoak inprobisatzen dituen bertsolaria eta musikari bat edo bi. Besterik ez da behar Santa Ageda bezperako legea konplitzeko.

Kopla kantari

«Santa Ageda bezpera degu Euskal Herriko eguna, etxe guztiak kantuz pozteko aukeratua duguna...». Toki bakoitzeko aldaerak aldaera koplak horrexekin bertaratzen dira aterik ate Santa eskean ari direnak.

Etnologoek arabera nekazari giroko negu gordinetan sorturiko ospakizuna da Santa Ageda bezperakoa, eta zenbaitzuk inauteriekin lotzen dute. Makila handien hotsak zein Santa Agedaren ohorez egiten diren eta egin izan ohi diren hainbat ospakizunek, mundu ikuskera berezkoaren aztarnak gordetzen dituztela diote.

Etnologo batzuek gogora ekarri dutenez, esaterako, garai batean halako egunez Nafarroako hainbat tokitan tximiniak garbitu ohi zituzten. Nafarroako beste zenbait udalerritan, berriz, ohikoa zen zenbait herritarrek — emakume zein gizasemeek — elizako kanpaiak jotzea.

Martiri sufritua

Hala ere, itxura batean nekez argitu daiteke zergatik den Santa Ageda —«Agate deuna» hainbat koplatan— hain garrantzitsua Euskal Herrian. Izan ere, urrutia jaio zen: Sizilian, 230. urtean. Kondairaren arabera kristau sutsua izaki, nahiago izan zuen martiri bihurtu, gizon fedegabe baten ezkontza proposamenari baiezkoa esatea baino. Diotenez, sufrimenduz beteriko azkena izan zuen, bularrak moztu baitzizkioten.

Gaurko egunez kantatzen diren koplak haren azken arnasaren atariko torturak gordin-gordin kontatzen dira. «Lendabizi azotatu ta kendu zizkaten bularrak...», «Istanpatian estalizio gorputz guztia odolak»... Ohikoak izaten dira horrelako koplak, bai eta santuarekin zerikusirik izan gabe, herriko gorabeheren berri ematen dutenak zein eskea egitera mugatzen direnak ere.

Etnologoek zenbaitzuk diotenez, koplak kantatzen haratagokoak izan dira Euskal Herrian Santa Agedaren inguruan sortu diren hainbat sinesmen. Hala, garai batean nekazari giroan Agate Deuna mundura umeak ekarri berri zituzten emakumeen zaindaria izaten zela diote, eta ume jaio berriari esnerik eman ezin zioten amek santa horri eskatzen ziotela laguntza.

Garai bateko gizartearen ondare ia desagertua dira kontu horiek.

Etnologoek aztergaia. Koplak kalean daude oraindik ere, ordea. Bizirik.

*Zorion etxe hontako denoi
Oles egitera gatoz*

*Aterik ate ohitura zaharra
Aurten berritzeko asmoz*

*Ez gaude oso aberats diruz
Ezta ere oinetakoz
Baina ezta ez sano gabiltza
Ta kanta nahi dugu gogoz*

*Santa Ageda bezpera dogu
Euskal Herriko eguna
Etxe guztiak kantuz pozteko
Aukeratu doguna*

*Santa maitea gaur hartu dogu
Gure bideko laguna
Haren laguntzaz bete gentzake
Egun hontako jarduna*



Santa Agueda. Zurbaran

Jendaurrean egin behar duten azalpenerako egitura deskriptiboa proposatzen diegunez, orain egiaztatu behar dute antolaketa era horri egokitzen ote zaion zirriborroan duten azalpena. Hala ez bada, modu horretan antolatzeko eskatuko diegu, hau da, informazioa ahalik eta modurik deskriptiboenean eta argienean azaltzeko eran.


9. Jarduera: Informazioa ondo kohesionatuta azaltzeko baliabideak lantzen.

CDa entzungo dute. Musika aparatua behar da. Koherentzia zer den ikusi ondoren, jarduera honetan informazioa argi, zehatz eta ideiak bata bestearekin era egokian lotzeko eta adierazteko baliabideak aztertuko dituzte. Zer den kohesioa azaldu.

9.1. Ariketa

Ariketa honetan testu antolatzaile eta lokailurik erabilienak identifikatuko dituzte. Taulan dituzte ideiak elkarrekin lotzeko erabili ohi diren testu antolatzaile, lokailu eta esapideak. Ezer egiten hasi aurretik taula aztertzeko eskatu. Gero, irрати saio bat entzungo dute.

Entzuten diharduten bitartean, igorleek erabiltzen dituzten antolatzaileak eta lokailuak, kohesio emaileak, beheko taulan idatziko dituzte.

Hiru pertsonekin elkarrizketa. Bi ikastetxetako irakasle dira eta gazteen artean literatura zaletasuna eta idazteko grina pizten saiatzen dira. Bestea, ordea, saria irabazi duen neska gazte baten ama da. Idazle sena pizteaz eta sariketak horretan izan dezakeen eraginaz mintzo dira. 



Gazteak eta literatura

Hasierakoak

Hasteko,
Lehenengo eta behin,
Ezer baino lehen,
Ezeri ekin baino lehen,
Lehen-lehenik,
...z hitz egin behar dudalarik,
Sarrera gisa esango dugu ...

Ordena

Alde batetik, ... Bestetik,
Ildo beretik,
Lehenik.../ bigarrenik, ...
(Arestian) esan bezala,
(Gorago) esan bezala,
Lehenengo hariari jarraituz,
Gauzak horrela,

Adibideak jartzeko

Adibidez,
Esate baterako,
Hau da,
Ikus, adibidez, -ren kasua: ...
Kasu (bat aipatzeko ...)
Hori erakusteko, aipa dezagun...

Arrazoitzeko

Izan ere,
Hori dela eta,
Horrela, ba,
Indartzeko
Aipatu bezala,
Aipatu dugunez,
Berrito esanda,
Beste era batera esanda,
Zehatzago esanda,
Hobeto esanda,
(Gorago) esan bezala,
Are gehiago,
Gainera,
Kontuan hartu,
gainera,

Onarpena (ziurtasuna)

Ez dago dudarik...
Seguruenik
Ziur aski
Zer esanik ez
Egia da... -(e)la
Dударик gabe
Zalantzarik gabe
Argi dago (e)la
Bistan da (e)la
Beharrezkoa da garbi
uztea
..., noski / ..., jakina

Idea bat aurkezteko

-ri dagokionez,
... dela eta, komeni da
esatea ...
Oro har,
Jarraipena
(Honen) ondorioz,
Horren haritik,
Hari beretik,
Era berean,
Bigarrenik,
Gero,
Honen ostean,
Hau (ikus) eta gero,

Bukaerakoak eta ondorioak

Amaitzeko, / Bukatzeko,
Amaiera bezala,
Aurreko guztia (laburbilduz),
Ondorio gisa,
Amai dezagun esanez (e)la
Azkenik, zera: ...
Laburbilduz,
Hitz gutxitan (esateko): ...
Horrenbestez, zenbait
ondorio atera daitezke: 1... 2...

Kontrakotasuna

Baina
Dena dela, / Dena den,
Hala (eta guztiz) ere,
Edozein modutan ere,
Edonola ere,
Nolanahi ere,
Esanak esan,
Hori(ek) gorabehera,
..., ordea,
..., berriz,
..., aldiz,

Aipamenak; iritziak emateko

(r)en arabera,
Askoren / Batzuen iritziz
... (r)en ustez,
(r)en esanetan,
Diotenez,
Antza denez,
Dirudienez,
Badirudi... -(e)la
...(e)la dirudi
Dakigunez,
Irakurri dugunez,
Idea berriak txertatzeko
Ez hori bakarrik,
Bestalde / Beste aldetik
Baita ... ere
Baina, bestetik,
... ere bai
ez ezik ... ere
Egia da, hala ere,
Era berean,
Halaber,
(Horrez) gain,
Horiek horrela,
Bai... bai
Ez... ez

Talde handian bilduta zuzendu eta ondoko txantiloia bete.

Audioan entzundako antolatzaileak:

Baina **Kontrastea**
alde batetik **ordena**
egia esan (teko) **onarpena, ziurtasuna**
izan ere **Arrazoitzeko**
Beraz **ondorioa**
Nik uste dut **iritzia**
Esate baterako **adibidea**
alegia **indartzeko**
dudarik ez **indartzeko**
dela ikasia dela...jasoa **ideia berriak txertatzeko**
Batez ere **indartzeko**
Orduan **ondorioa**
dudarik gabe **ziurtasuna**

...

Bestalde, testuak aukera ematen du literaturaz eta ikasleen eta irakasleen jardunaz hitz egiteko ikasleekin

9.2. Ariketa

Aurreko ariketako **antolatzaileak eta lokailuak erabiliko** dituzte ariketa honetan. Bakarka arituko dira. Bi testu labur daude ariketan eta testu antolatzaile eta lokailuak aldatu edo erantsi beharko dituzte. Lehenengo ariketan, markatuta dituzte aldatu beharrekoak. Bigarrenean, berriz, beraiek erabakiko dute zein diren erabil litzaketen kohesio-emailerik egokienak. Zuzenketa talde handian bilduta egin.

Ahozko literatura bizi baten oinarria izan da. Honen lekuko, (adibideak jartzeko) gaur egun indarrean dugun bertsolaritza.



Hamaseigarren mende hondarrean, Espainiako Erregearen historialaria zen Esteban de Garibayek ikerlan handiak egin zituen euskal idazki zatitxo, olerki, ipuin eta erran-zaharrak biltzeko. Halaber, Arnaud d'Oyhenart, xiberotar olerkari-historialariak, 1657an plazaratu zuen liburuak, bi zati ditu : "Atsotitzak eta Oihenarten gaztaroa neurtitzetan".

Horrek frogatzen du, beraz, Europako Pizkundea baino lehen, Euskal Herrian ahozko literaturaren ohitura bazegoela, hain segur, bertsolaritzan oinarritzen zena.

Azken hogeita hamar urte hauetan (ideiak berriak txertatzeko) beste kultura-adierazpen batzuk ere funtzio

garrantzitsu bat bete dute euskararen birjabetze prozesuan, ____ (adibidea jartzeko), horietan kantua eta antzerkia.

Supazterreko distira beste argi mota batzuek aldatu badute ere, ipuinak, beti, gu guztien gogo-bihotzak hunkitzen ditu. Koldo Amestoy eta Pello Añorga ipuin kontalari profesionalek, ezin hobeki badakite hitza indarrean ezarriz jendea xoratzen...

2. Testua:

Herri-kontaketa

Ahozko literaturan, oro har, musikaz eta erritmoaz egindako literatura nagusitzen zen, alegia: baladak, koplak, bertsolaritza... Hala ere, herri-kontaketa ere bazegoen, nahiz eta hainbesteko nagusitasunik ez izan.

Hori dela eta, orain arte aipatutakoak ez bezala, herri-kontaketa galdu egin zen, baina, betiko desagertu aurretik, hainbat kontaketa labur eta luze gorde ziren. Horien arabera, honako ondorioak atera dituzte:

Kontaketa laburrak: kontaketa horiek mundu zabala islatzen dute, eta Euskal Herritik kanpo ditu darrak. Bi motatako gaiak bereizten dira: folklore-gaiak eta denbora pasatzekoak. Folklorea jorratzen utenak irakaskuntzari esker aztertu izan dira. Bigarren motakoek entretenitza zuten helburu. Oro har, dineko jendeak gazteei kontatutako istorioak ziren. Normalean ahozko istorio horiek ahoz aho kontatzen iren, eta hori zela-eta, urteetan zehar irauten zuten.

Kontaketa luzeak: ahozko estiloa nagusitzen da eta, oro har, egileak bizi izandako egoerak kontatzen dira. Hiru motatakoak daude: nobela, biografia eta ohiturak. Zorritzarez, ez zaie ez balio zientifikorik eman ez beren alderdi literarioa aitortu.

9.3. Ariketa. Testu paraleloa

Azalpenerako zirriborroa erabiliko dute ariketa honetan.

Aurreko jarduerako testu antolatzaileak eta lokailuak erabiliz ideien arteko loturak gauzatuko dituzte.

Jendaurreko azalpena egingo duten taldekideak bilduko dira eta bakoitzak bere koadernoan, bakarka, ondoko testu antolatzaile eta lokailu batzuk txertatuko ditu zirriborroan. Beste testu antolatzaile eta lokailu batzuk ere (ikus koadroan) erabil ditzakete. Ideiak lotzeko lokailu ezberdinak erabiltzen trebatzea da helburua. Horretara, testu paraleloak sortuko dira. Testuen konparaketa egingo dute taldeka. Erabaki egin beharko dute, elkarrizketaren bidez, jendaurrean egingo duten azalpenean zein erabiliko duten..

Proposatu dizkiegun lokailuak eta kohesio emaileak:

Gaia sartzeko : Lehen-lehenik, ...z hitz egin behar dudalarik, sarrera gisa esango dugu ...

Ordena markatzako: Alde batetik, ... Bestetik, Ildo beretik, lehenik.../ bigarrenik, ...

Puntu berberari ekiten jarraitzeko: Are gehiago, Aipatu bezala, Aipatu dugunez, Berriro esanda

Adibideak txertatzeko: Esate baterako, Hori erakusteko, aipa dezagun...

Laburbiltzeko edota ondorioztatzeko: Ondorio gisa, Amai dezagun esanez (e)la, Horrenbestez, zenbait ondorio atera daitezke: 1... 2...

Talde handian bilduta bozemaileak ozenki irakurriko du jatorrizko testua, hau da, zirriborroa. Ondoren, lokailuak eta testu antolatzaileak idatzi ondoren sortutako testu berria irakurriko du.

9.4. Ariketa

Kohesioa. Ordezkapen lexikala lantzeko ariketa.

Alferreko errepikapenak saihesteko baliabideez arituko gara. Errepikatutako hitzak antzeko esanahia duten hitzekin ordezkatzeko aukeraz baliatuko gara; ordezkapen lexikalaz, hain zuzen ere.

Testu laburtxo bat dute eredu gisa. Oso testu astuna da, errepikapenez josia. Behin eta berriro ageri diren hitzak azpimarratzeko esango diegu eta ikusteko zein astun eta aspergarri suertatzen den.

Adibidea:

San Demetriok monasterio bat eraiki nahi zuen eta erregeari horretarako terrenoa eskatu eta erregeak terreno zabala eskaini zion. Egun batean astoz zeharka zezakeen terrenoa nahikoa zuela esan zion San Demetriok erregeari.

Terrenoa neurtzeko jarri zen San Demetrio astoaren gainean, baina astoa egun horretan ondoezik zegoen eta astoak pauso gutxi eman ahal izan zituen eta San Demetriok ez zuen lortu bere monasterioa egiteko adina terreno.

Iturria: Ostadar Euskal hizkuntza eta literatura DBH lehen zikloa

Ondoren, ordezkapen lexikalaz baliatuta ea zer nolako aldaketak egin diren azaltzeko esango diegu:

2. testua

San Demetriok monasterio bat eraiki nahi zuen eta erregeari horretarako terrenoa eskatu eta subiranoak lur eremu zabala eskaini zion. Egun batean astoz zeharka zezakeen lur zatia nahikoa zuela esan zion santuak jaunari.

Lurzorua neurtzeko jarri zen Demetrio animaliairene gainean, baina aberea egun horretan ondoezik zegoen eta gizajoak pauso gutxi eman ahal izan zituen, eta gure gizonak ez zuen lortu bere monastegia egiteko adina lur.

Ariketa moduan Lehen Hezkuntzako 6. mailako mutiko batek idatzitako testua dago. Azalpen testua da eta errepikapen ugari ageri da (San Fermin jaiaren gaineko testua da eta jai, ospakizun, festa... hori behin eta berriro aipatzen du igorleak gaiarekiko erreferentzia ez galtzeko. Beste errepikapen batzuk ere nonahi ageri dira). Ez da ariketa zaila eta ikasleen adina kontuan harturik, sinonimoez edota antzeko esanahia duten hiponimo edo hiperonimoez baliatuta, asko hobetu dezakete jatorrizko testua. Taldeka egiteko esan.

Iturria: http://www.pnte.cfnavarra.es/eibz/materi3/idaz_ebal/probak/3.zikloa-D/Sanferminak%20ereduak/2.-%20trebea.pdf



1994-ko Ekainaren 15-a, astelehena

Juan mutea:
Zer moduz zaudte? Ni oso ondu nago.
Laster San Fermínak izango dira Iruñean.
Iruñean San Fermínak duela hiru da.
Oso handia da eta Nafarroan dago.
Etxe eta eskola asto ditu, baita eliza berente
ere.

San Fermínak Nafarroako festarik garrantzitsuenet
bat da. Atzeritar asko etorzen dira eta
herregatik ez dago San Fermíneta kale
bat hutsik. Iruñean 200.000 pertsona daude
bainan San Fermíneta 1.000.000 atzeritar
etorzen direla esaten (duten) da.

San Fermíneta lehenengo egunean
jendea txupiarzara joaten da txupiarzara
(kete) kete batzuk botatzen dira Gobernuak.

pektora . . . bat . . . autatzen . . . dute . . . Kofeteak . . . lotat zeku.
Momentu . . . hartatik . . . aurrera . . . San . . . Ferminan . . .
husten . . . dira . . . Goiz . . . labaitzean . . . (entziera) . . . entziera . . .
bat . . . dago . . . lotziera . . . zerenak . . . jentsearen . . . atzetik . . .
jaten . . . dira . . .

. . . San . . . Ferminetan . . . gauza . . . aske . . . daude . . .
Dendetan . . . San . . . Fermindako . . . asapa . . . jartzen . . . dute . . .
Asapa . . . (C) txuria . . . da . . . baina . . . gerritsa . . . eta . . .
zupia . . . goriak . . . dira . . . Bassaketan . . . badaude . . . eta . . .
jende . . . askok . . . eta . . . askok . . . bassaketara . . . jaten . . . dira . . .

. . . Juan, . . . etortzen . . . zaren . . . lehenengo . . . egunetik . . .
gauza . . . aske . . . egingo . . . ditugu . . . elkarrekin . . .
Bassaketara . . . joango . . . gara . . . eta . . . gaureris . . .
du . . . artifizialak . . . joango . . . gara . . . Ose . . . sugu . . .
pasako . . . dugub . . .

Espera . . . dit . . . zu . . . laster . . . etortzen . . .

Jen

9.5.- Ariketa. Puntuazio markak

Puntuazio markek duten garrantziaz konturazteko ariketa.
Lehendabizi, irratiko iragarkia entzuteko eskatuko diegu: (iturria: www.ikasbil.net).
Aitzakia izango da puntuazio zeinuen duten garrantziaz jarduteko.

Irratiko iragarki honetan testu bat irakurtzen dute oso azkar eta inolako etenik gabe. Honela puntuazioa zein beharrezkoa den adierazteko eta, horrekin lotuta, mezu publizitarioa sartzeko.

Puntuazio zeinuen garrantzia

Bikoteka egingo dute lan. Bi ariketa dituzte:

- Atalean puntuazio marka batzuen definizioak emango dizkiegu (10)
- Atalean, berriz, hamabost dira dauzkaten puntuazio marken erabilera/ezaugarriak.

Lehiaketa moduan antolatu daiteke ea zein bikotek asmatzen dituen hogeita bostak
A) atala (iturria: www.ikasbil.net)

1. Gutunetan, hasierako agurraren ondoren [redacted]
Adb.: Lankide hori: Jaso nuen otsailaren seiko zure gutuna.

2. Laburduraren ondoan [redacted]
Adb.: Or. (orrialde) pta. (pezeta)

4. Norbaiten hitzak aipatzen direnean, aipamena maiuskulaz hasten delarik [redacted]
Adb.: Galdera hau egin zidan emakumeak: Non dago hondartza?

6. Klausula bateko esaldiak bereizteko, pausaldia egiten denean [redacted] jarriko da.
Adb.: Kalera bazoaz, eros ezazu egunkaria.

7. Deikia edo bokatiboa esaldiaren hasieran doanean [redacted]
Adb.: Aizu, izaro, zatoz lehenbailehen.

8. Enumerazio baten aurretik [redacted]
Adb.: Lau urtaroak hauek dira: udaberria, uda, udazkena eta negua.

9. Ideia beraren bi alde desberdin adierazten dituzten bi perpausen artean [redacted]
Adb.: Ezin dezakegu horrela jarrai; hondamendira goaz zuzen-zuzenean.

10. Perpaus baten barruan, esandakoa argitzeko edo osatzeko
beste esaldi bat tartekatzen denean [redacted]
Adb.: Koldo, Maiteren anaia, etxera joan da.

B) Atala

- 1.- Izenordain eta aditzondo galdetzaileekin baita galderazko perpausekin ere erabiltzen dira. Atzean ezin da punturik jarri. Galdera ikurra
- 2.- Behaketak edota datuak tartekatzeke erabiltzen dira. Parentesiak
- 3.- Testu baten zatiren bat aipatzen ez dugunean jartzen dira. Eten puntuak
- 4.- Testuko aipamenak giltzaperatzen ditu ; zentzu ironikoa, zakarra edo arrotza adierazteko erabiltzen da ; gaitzizenak eta izengoitiak azpimarratzeko ere bai. *kakotxak*
- 5.- Lerro baten amaieran hitza banatzeko erabiltzen da; hitz elkartuak lotzeko; zenbaki-korrelazioa adierazteko. Gidoia
- 6.- Egiturari dagokionez, garrantzirik handiena duen zeinua da, perpausak banatzen baititu. Esanahi osoa duen aldia ixteko erabiltzen da. Puntua
- 7.- Perpausari bakarrik ematen dio amaiera. Puntua
- 8.- Elkarrizketetan, pertsonaia bakoitzak esandakoa eta kontalariaren oharrak eta azalpenak adierazteko- gidoiak,.
- 9.- Azalpen oharrak (datak edo aipu baten autorearen izena) adierazteko ere erabiltzen dira. Parentesiak
- 10.- Elementu guztiak biltzen dituen hitz baten bidez iragarritako zerrenda baten aurretik jartzen dira. Bi puntuak
- 11.- Beste norbaitek esandako zerbaite hitzez hitz errepikatu dela adierazteko; artikulua, olerki edo lan baten zati baten izenburua adierazteko, besteak beste. *Kakotxak*
- 12.- Paragrafo baten amaiera adierazten du. Puntua
- 13.- Idatzi osoaren amaiera adierazten du. Puntua
- 14.- Egin behar diren pausaldi laburrak edo txikiak adierazteko erabiltzen da. Koma
- 15.- Amaitu gabe dagoen perpaus edo zerrenda baten ondoren jartzen dira. Eten puntuak

Azkenik, puntuazio markarik gabeko testua emango diegu. Bakarka egingo dute ariketa hau eta nork bere testua dagoen dagoenean, eta isilean irakurtzeko eskatuko diegu. Ondoren, testuak falta dituen puntuazio markak jartzeko esango diegu goiko definizioak oinarritzat hartuta, eta gero talde handian egingo dugu zuzenketa.

ETBegira "Munduan zehar"

Laster hasiko da berriro Euskal Telebistan Munduan zehar programa hil honen 23an hain zuzen esan digutenez eta seguru aski ordubete iraungo du lan-taldea honako hauek osatuko dute Mikel Urretabizkaia lehen ere saioaz arduratzen zena Felipe Etxeberria eta Ana Azpirik azken honek egingo du saioaren aurkezpena.

Laster hasiko da berriro Euskal Telebistan "Munduan zehar" programa. Hil honen 23an, hain zuzen, esan digutenez, eta seguru aski ordubete iraungo du. Lan-taldea honako hauek osatuko dute: Mikel Urretabizkaia, lehen ere saioaz arduratzen zena, Felipe Etxeberria eta Ana Azpirik. Azken honek egingo du saioaren aurkezpena.

Iritsi dira bigarren lan-sekuentziaren bukaerara!

Zirriborrea idatzi eta ahal izan duten neurrian zuzendu egin dute eman dizkizuegun jarraibideak lagun. Orain, taldeka, ikaskideen zirriborroen zuzenketa egingo dute. Beraz, trukatu egingo dituzte eta zuzendu egingo dituzte. Iradokizunak ere adierazteko eskatuko diegu. Txantiloia hau erabil dezakete zirriborrea zuzentzeko.

AZALPENAREN ZIRRIBORROA ZUZENTZEKO KONTROL ZERRENDA		BAI	EZ	IRADOKIZUNAK
SARRERA	<ul style="list-style-type: none"> • Irakurleak ikusiaz bat, badaki zein den gaia. • Euskal literatura eta ahozko literaturari buruzko ezaugarri orokorrak aipatzen dira. • Lanaren justifikazioa egiten da. 			
GARAPENA	<ul style="list-style-type: none"> • Gaia paragrafotan sailkaturik dago. • Paragrafoak puntu eta apartez mugaturik agertzen dira. • Datuak hurrenkera zehatz, argi eta ordena baten arabera azaltzen dira. • Ideiak argi eta ulergarri adierazten ditu. • Gaia garatzeko informazio nahikoa ematen du. • Hartzaileari informazio berria eskaintzen dio • Hitz ezezagunak adierazteko hainbat baliabide erabiltzen dira • Testuko ideiak lotzeko zenbait testu antolatzaile erabiltzen dira • 3. pertsonan idatzita dago. 			
AMAIERA	<ul style="list-style-type: none"> • Hitz gutxitan laburtzen du esandakoa. 			

3. LAN-SEKUENTZIA

AHOZKO AZALPENAK NOLA EMAN? EZAUGARRIAK

Lan-sekuentzia honetan ahozko azalpen on bat egiteko hitzezko zein ez-hitzezko komunikazio baliabide batzuk aztertuko ditugu. Horretarako, bideo batzuk ikusiko dituzte eta behaketatik abiatuta, ondorioak aterako.

10. Jarduera: Ereduak aztertzen.

Zenbait bideo sekuentzia proiektatu behar dira kanoia eta ordenagailua erabiliz (gelan bertan egin daiteke). Hala ere, aukerarik balego informatika gela oso leku aproposa izan liteke jarduera hau taldeka behar bezala burutzeko.

Jarduera honetan azalpen testuen ezaugarriak gogoratzen saiatuko gara. Gaztelania arloan landutakoa erabil dezakegu. Ezaugarri orokorrei erreparatzeko eskatuko diegu eta gaztelania arloan landutakoa hona ekartzeko.

Zein diren idatzizko zein ahozko azalpenen ezaugarri orokorrak galdetu; zertan diren berdinak eta zertan ezberdintzen diren ahozko eta idatzizko azalpenak; komunikazio xedeaz eta hizkuntzari lotzen zaizkion ezaugarriez jardun (gaztelaniako unitatean 13, 14 eta 15. jardueretan landua).

Ikasleak taldeka bildu eta eskatu bideo sekuentzia bakoitza ikusi ahala behaketa txantiloiko datuak betetzeko.

Ondoren, talde osoaren iritziak entzun eta denon artean erantzungo dute jarduerako galdera nagusia. Arbelean idatzi ikasleek adierazi dituzten arrazoiak bataren edo bestearen egokitasuna balioesteko.

Sei bideo sekuentzia jarri ditugun arren, ikasleei bost baino ez dizkiegu jarriko.

Materiala

1. bideo sekuentzia (Dorleta Alberdi) (aurkezpen egokia)

2. bideo sekuentzia (Abel Ariznabarreta) (testua irakurtzen du)

3. bideo sekuentzia (Joseba) (baliabideak erabiltzen ditu eta ikusleei galderak egiten dizkie, hartzaileekiko inplikazioa lortu nahi du)

4. bideo sekuentzia (Arantxa Aurrekoetxea) (urduri xamar)

5. bideo sekuentzia (Luistxo Fernandez) (ikasleei zuzendutako azalpena)

6. bideo sekuentzia (Iker Mertxan) (Kameraren aurrean hizketan)

EREDUAK AZTERTZEN

	1. bideoa	2. bideoa	3. bideoa	4. bideoa	5. bideoa
1. Hasierako agurrik egin du?					
2. Sarreran aurkezpenik egin du? (parte hartzaileena, gaiarena...)					
3. Sarreran azalduko duenari buruzko zertzelada nagusiak adierazi ditu?					
4. Azalduko duenari buruzko gidoia, eskema edota sumarioa aurkeztu du?					
5. Zeinetan antzematen da ondo azalpenaren beraren egitura? Sarrera, garapena eta ondorioa?					
6. Beste baliabiderik erabili du (ppt diapositibak, arbela, gardenkiak, fotokopiak...)?					
7. Zer eginkizun dute euskarriek? Era egokian erabili du hizlariak					
8. Azalpenari lagundu dio euskarri horrek?					
9. Garapenean, entzuleengana hurbiltzeko ahaleginik egin du? (ahots tonua aldatuz, lekutik altxatu eta entzuleengana joanez... galderak eginez...)					
10. Urduritasuna antzematen zaio?					
11. Azaldu beharrean irakurri egin du?					
12. Entzuleei begira aritu da denbora guztian, begirada beheratu gabe.					
13. Lasai agertu da eta gaia menperatzen duela erakutsi du?					
14. Amaitzeko, esandakoa laburbiltzen duen esaldirik edo adierazi du?					
15. ...					

Zein hizlarik egin du azalpenik onena? Zergatik?

Jarduera honetan ahozko azalpenaren zenbait ezaugarri besterik ez dute aztertu, hurrengoetan, berriz, azalpen egoki eta on batek beharko lituzkeen baliabide eta ezaugarrietan sakondu ahal izango dute...

11. Jarduera : Ez-hitzezko ezaugarriak

Keinuak, imintzioak, eta gorputz jarrerak aztertzeko taldeka bilduko ditugu eta ondoko koadroetan adierazitako ezaugarriei erreparaturik egokienak hautatuko dituzte.

KEINUAK
1. Entzuleei begira egon zaitez denbora guztian, bizkarra eman gabe eta begirada beheratu gabe.
2. Ez altxatu behin ere jarlekutik, ez eta eskemak, grafikoak eta abar erakusteko ere, eta ez fotokopiak irakasleari edo ikasleei emateko ere.
3. Komeni da entzuleetako alderdi bat baino gehiagori begiratzea, baina bereziki irakasleari eta zure adiskideei.
4. Ez egon buru makurtuta azalpena irakurtzen ari zarela.
5. Lasaitasun itxura egin behar duzu eta gaia menperatzen duzula erakutsi.
6. Azalpenean hasi baino lehen, erlaxa zaitez eta lasai hartu arnasa minutu batzuetan. Horrek lasaitasuna eta konfiantza emanen dizkizu.
7. Oroit zaitez eskuek eta aurpegiak espresibitaterako tresnak direla.
8. Ez da komeni txikleak jatea edo ahoaren aurrean eskuak, boli bat edo paper bat edukitzea.
9. Eserita bazaude azalpenean, altxa zaitez eskema, grafiko, taula edo mapa erakusten duzunean, hura esplikatzen ahal izateko.
10. Komeni da keinu eta mugimendu bortitz askorekin erakustea gaian askojakina zarela.
ETENAK
1. Komeni da azkar hitz egitea eta etenik kasik batere egin gabe, gehieneko denboratik Ez pasatzeko.
2. Azalpenaren haria galtzen baduzu, eten bat egin eta berriz irakurri gidoia edo ekarri dituzun notak.
3. Ahal duzun aldiro, hitz makulu bat errepikatu: <i>zea... osea, hau da, bueno, etaaaa</i> , baina ez egin inoiz etenik.
4. Segi iezaiezu testu idatziko etenei, bai lerroalde artekoiei nola ideia nagusia duten enuntziatuen artekoiei.
AHOTSA
1. Ahots tonua aldatzeak lagun egiten du zenbait hitz edo enuntziatu gako azpimarratzen eta haiei enfasi handiagoa ematen.
2. Inportantea da beti bolumen bati eustea, ahal bezain ozen hitz eginaz edo oso apal mintzatuz Ez inor gogaitzeko .
BESTE BALIABIDE BATZUK
1. Beste zenbait baliabidek (eskemak, grafikoak, taulak eta mapak) toki gutxi hartu behar dute eta ez du inporta entzuleek ez ikustea.

2. Beste zenbati baliabide erabiltzea lagungarria da diskurtsoaren haria argitu, esplicitatu edo mantentzeko.

Koadroa osatuko dute. Kontrol orri gisa ere erabili ahal izango dute. Bertan, ez-hitzezko komunikazioari lotzen zaizkion ezaugarri egokiak adieraziko dituzte.

KEINUAK	ETENAK	AHOTSA	BESTE BALIABIDE BATZUK

12. Jarduera: Azalpenarekiko interesa mantentzeko zenbait estrategia.

Hartzailearen arreta azalpenaren gaiarekiko lortzeko, zeintzuk izan litezke estrategia erabilgarrienak?

Jarduera honetan arreta erakartzeko estrategiarik baliagarrienak aztertuko dituzte. Berrito ere kanoia eta ordenagailua erabiliko ditugu eta aurreko jarduerako bideo sekuentziak ikusiko dituzte taldeka bildurik. Hori egiten hasi aurretik arretaz irakurri beharko lukete jardueran proposatzen zaien informazio testu laburra.

KOMUNIKAZIO EGOERARI DAGOKIONEZ

Lehenbizi, berriro gogorarazi behar dizuegu nortzuek osatzen duten komunikazio egoera. Ikasle bat edo batzuk dira, "adituen" papera hartu dutenak entzuleen aurrean (ikasgelako gainerako ikasleak).

Igorlearen asmoa, kasu horretan hartzaileei ezagupen bat helaraztea da; horiek, arretaz entzun behar dute gai baten gainean zerbait ikasi edo lehendik dakitena sakontzeko.

Marka deiktikoek hasierako egoera hori islatzen dute aditzeko pertsonetan eta singular zein pluraleko lehenbiziko izenordain pertsonaletan (ni/gu / zuek): ...*halako gaiaz hitz egingo dizuet...*; ...*delako gaia jorratuko dugu...*; *zuetako askok entzun izango duzue noski ... aipatzen...*

"Adituaren" papera ere ongi landu behar da, entzuleen eta "adituaren" arteko tarte ahalik eta gehien gutxitzeko.

Fase honetan komeni da zenbait baliabide erretoriko praktiko kontuan izatea komunikazioa hobetzeko, hala nola:

- **Galderak egitea entzuleen arreta harrapatzeko eta garatu behar den gaira hurbilarazteko.**
- **Galderak egitea entzuleek azalpenari segitzen diotela segurtatzeko.**
- **Ozenki eta argi mintzatzea, eta behar diren geldiuneak egitea, esaten duzuen ongi ulertzen dela segurtatzeko.**
- **Sarreran azalpenaren gidoia edo parteak aurkeztea, argi uzteko zer eduki esplikatzeko diren eta zer hurrenkeratan.**
- **Behar diren dokumentu lagungarri guztiak prestatzea.**

ESTRATEGIAK	1. bideoa	2. bideoa	3. bideoa	4. bideoa	5. bideoa
Galdera erretorikorik erabiltzen du?					
Elkarrekin bizi izandako esperientziak edota elkarrekin ikasitakoa...aipatzen du?					
Ikasleei, ikaskideei, aipamen zuzenak egiten dizkie?.					
Erregistro aldaketarik egiten du?					
Umorea ageri da?					
Entzuleen maila balioesteko ahaleginik egiten du?					
Amore ematen du? Onartzen du kontrako ideiarik?					

Jarduera honen bukaera gisa ondoko kontrol txantiloia idaztea proposatuko diegu. Bertan, ez-hitzezko eta hitzezko estrategia eta baliabiderik erabilgarriek zehaztuko dituzte.

Talde handian bilduta hitz egin eta zehaztu zeintzuk diren azalpenean kontuan hartu beharreko ezaugarri nagusiak.

Estrategiak kontuan hartzeko Kontrol-zerrenda

Ez-hitzezko ezaugarriak	1.- 2.- 3.- 4.- 5.- 6.-
Hitzezko ezaugarriak	1.- 2.- 3.- 4.- 5.- 6.-



13. Jarduera: Hizkuntza-erregistroa

Ordenagailua eta proiektorea behar dira.

Zer da erregistroa? Entziklopediak dakarren definizioa emango diegu ikasleei: Erregistroa da hiztun batek harreman, asmo, gai, formaltasun-maila eta testuinguruko beste hainbat faktoreren eraginez erabiltzen duen hizkera.

Jendaurreko azalpenak, erregistroari dagokionez, dituen ezaugarriak zehaztu ditugu: aurretiazko plangintza du eta erregistro formalari dagokio.

Bestalde, entzuleen arabera egokitzea behar du, hau da, azalduko dutena hartzaileen mailara egokitu behar du; izan ere, edozein testu prestatzean eta ekoiztean, kasu honetan jendaurreko azalpena, funtsezkoa da komunikazio egoerara egokitzea.

Erregistro formalaren ezaugarriak aipatu eta zehaztu jendaurreko jarduna ezin izango dela lagun arteko erregistro hurbilekoa izan. Beraz, hizkuntza molde estandarra erabiliko dute, neutroena. ***(Erregistro bat estandar edo orokor bihurtzen da gizarte itun baten ondorioz. Erregistro estandarra halakoa izaten da ia irakaskuntzan baino erabiltzen ez delako. Baina ikasleei luzaro irakasten zaenez gero, herri alfabetatuetan gehienon erregistro bihurtu ohi da) .***

Taldeka arituko dira. Lehendabizi, bideo pasarte bat ikusiko dute. Protagonistek lagunarteko hizketa, hitanoa, darabilte. Ikusi ondoren, elkarrizketaren transkripzioan falta diren hutsuneak beteko dituzte.

Testua osatuta eta talde handian zuzendu ondoren, berriro bilduko dira eta testu osoa erregistro estandarera aldatzeko eskatuko diegu, baina kutsu formala, jaso, ematen ahaleginduko dira. Horretarako, lagungarria izan dakieke gaztelania arloan egindako konparaketa, hau da, testu formalari dagozkion ezaugarriak zehazten dituen (14. jarduera) .

Aldatu beharreko lagunarteko zenbait esapide azpimarratu egin dizkiegu, zer den aldatu behar dutena zehatzago jakin dezaten..

Azkenik, ikaskideen aurrean antzetzuko dute erregistro formalera aldatu duzuen testu hori.

Bideoa **Gaizkiulertua**

GOENKALE telesaioko eszena bat da; bi lagunen arteko elkarrizketa. Diru-kontu bat dela eta, horietako batek azalpenak eskatzen dizkio besteari. Baina, gaizkiulertu bat besterik ez da izan eta dena argitzen da. Ikusi arretaz eszena. Gero, bete hutsune bakoitza adizkietatik dagokiona aukeratuz:

Duk	Utzidak	Emaiek	Zagok
Diat	Duk	Ezak	Huen
Dakik	Zegoan	Badidak	Dituk
Hadi	Nioan	Dik	nian

Gaizkiulertua

(Zuzenketa: aukeretako bat)

Martin: **Utzidazu** azaltzen, Paul

Paul: **Berandu samar (duzu) (da)** azalpenak ematen hasteko, ez duzu uste?

Martin: **Ongi** da, Paul, hainbeste urtetako adiskidantza ezin da horrela amaitu. Utzi gutxienez...

Paul: **Esan itzazu esan behar dituzunak!**

Martin: Hau guztia gaizkiulertu bat besterik ez da izan. Zuri laguntzea besterik ez nuen buruan. Sozioari dirua eskatu nion, baina... berak ezetz; horrelako dirutza **ez dela doan ematen**, zerbait nahi zuela **hura ordaintzeko, haren orde**.

Paul: Ia, eta zuk nire taberna eskaini zenion

Martin: Dirua berea zen, ez nirea, ez nuen beste modurik

Paul: Bukatu duzu? **Zeregin handia dut oraindik**

Martin: Sinesten ez badidazu, emaezu begiratu bat paper hauei

Martin: Zer nahi duzu hauek ere sinatzea? Tabernaren beste erdia saldu behar duzu, agian?

Martin: **Ez jokatu horrela, Paul!** Makina txanpon-jalearekin ateratako diruaren ziurtagiriak dira. Diru hori zurea da Paul; irabaziaren nire zatia.

Paul: Begira Martin, **ez nauzu berriro engainatuko**, ez dut zuregandik ezer gehiago jakin nahi.

Martin: **Begira ezazu** zeure kontu korrontea. Hogei mila euro dituzu. Ba al dakizu zenbat den hori?. Mirenen tratamendua hasteko balioko dizu.

Paul: Bai, egun on bai. Begira, gauza bat ziurtatu nahi nuen, ea **azken aldian** nire kontu korrontean diru-mugimendurik egon den ala ez. A! Izena? Paul Batiné, eta kontu korrontearen azken lau zenbakiak 3707. Um, hogei mila euro, ia. Eta jakin al daiteke nork egin duen diru-sarrera hori? Martin Irureta. Oso ondo. Ongi da, eskerrik asko

Jendaurreko azalpenari lotzen zaizkion hainbat ezaugarri aztertu dituzte dagoeneko, hala nola, erregistroa, keinuak imintzioak, arreta erakartzeko zenbait estrategia... Azken sekuentzian, jendaurreko azalpena burutuko dute.



4.LAN-SEKUENTZIA JENDAURREKO AZALPENA BERA

14.Jarduera: Ahozko azalpenaren hezurdura prestatzen

Jarduera honen helburua jendaurreko azalpenaren hezurdura prestatzea eta ikaskideei ematea da, azalpenaren datu nagusiak, eta jakin beharrekoak, bertan idatz ditzaten. Era berean, ikasleek azalpenean zehar 'txuleta' moduan erabiliko dute.

Ahozko euskal literatura Kurrikulu edukia izanik, taldeka azaltzen dena ikastaldea osatzen duten ikasle guztiek jaso eta jakin beharko dute. Beraz, azalpenerako lagungarri izango da hezurduraz gain, zenbait datu ere ematea. Bestalde, ikasleek eurek erabakiko dute azalpenaren lagungarri zer nolako baliabideak erabiliko dituzten (diapositibak, fotokopiak...).

Taldeka bilduko dira eta azalpeneko datuetan oinarrituta, funtsezkoenak, hau da, jakin beharrekoak, zehaztuko dituzte eskema baten bidez. Zenbait datu aipatu eta beste batzuk ikaskideek bete beharrekoak aipatu gabe uzteko esango diegu. Hezurdura hori abiapuntutzat hartuta, ikasleek azalpenean zehar entzuten dituzten daturik esanguratsuenak idatziko dituzte.

Azalpenaren hezurduraren fotokopiak aterako dituzte eta ikaskideei banatuko dizkiete, irakasleari, berriz, azalpenaren testu osa emango diote, 17. jardueran egin behar den zuzenketa orokorrerako datu zehatzak izan ditzan.

Testuak, eskemak baliagarriak izango dira, halaber, ikastunitatearen ebaluazio barnean proba idatzirik egin nahi izanez gero, galderak jartzeko.

15. Jarduera: Praktikatzen eta prestatutakoa berrikusten



Jendaurrean aritu aurretik oso inportantea da azalpen denborara doitzea. Hamar minutuko azalpena burutu beharko dute eta hiru taldekide dira. Taldean, jendaurrean arituko balira

bezala jardungo duzue elkarrekin eta baloratu egingo dute kontrol-zerrenda erabiliz, nola aritu diren eta nolako akatsak egiten dituzten.

Ezer egiten hasi aurretik, bestalde, erabaki egin beharko dute nork zer atal azalduko duen eta baliabide guztiak prestatu.

Azalpena prestatzen laguntzeko, sarean topatu dugun honako baliabide hau erabil dezakete.

AZALPENERAKO PRESTAKETA TAULA

Iturria: Maite Goñi <http://euskaljakintza.blogspot.com/>

HASIERAKO AGURRA	Kontua entzuleak adi jartzea da, guri entzuteko gogoia piztu behar dugu atal honetan. (Zer azalduko diegu? Nola hurbilduko gara entzuleengana?) Adibidez: “kaixo, denbora asko pasa dut hau prestatzen, eta ea gustatzen zaizuen...”, edo, “oso erraza da egitera goazena, adi-adi entzun...”, edo, “bueno, espero dut ez duzuela lorik hartuko...”. Edozer gauzak balio du, kontua entzuleak adi jartzea da, guri entzuteko gogoia piztea.
ZERTAZ HITZ EGINGO DUZU?	
AZALPENA	tarte honetan idatzizko eskema kopiatuko dute. Eskema hau bera erabiliko da gero, azalpena ematean.
BUKAERAKO AGURRA	Entzuleei agur esatea Adibidez: “hauxe zen dena, espero dut ulertu izana...”,edo,“zer, interesgarria dela lehoien bizimodua?...”, edo, “ez dakit ondo azaldu dudana baino...”. Edozer gauzak balio du, entzuleei agur esatea da helburua.

Goiko prestaketa taulaz gain, honako kontrol-zerrenda hau ere hartuko dute kontuan. Guk ikasleen ahozko jardunaren ebaluazio-txantiloia gisa erabiliko dugu. Ikasleek kontrol-zerrenda gisa erabiliko dute, jarduna era egokian prestatzeko.

AHOZKO AZALPENERAKO KONTROL-ZERRENDA

AHOZKO AZALPENERAKO KONTROL-ZERRENDA		BAI	EZ
AURKEZPENEAN	<ul style="list-style-type: none"> Gaia aurkeztu du Taldea eta taldekideak aurkeztu ditu. Azalduko duenari buruzko eskema aipatu du. 		
GARAPENEAN	<ul style="list-style-type: none"> Atalak ongi bereizi ditu. Atal bakoitzeko ideiak argi, zehatz garatu ditu. 		
BUKAERAN	<ul style="list-style-type: none"> Azaldutakoaren ondorio gisako ideia nagusia adierazi du. Hurrengo kideari txanda eman dio. 		

<p>ESTRATEGIAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ahotsa ondo kontrolatu du (tonua, bolumena, erritmoa...) • Etenaldiak ondo azpimarratu ditu • Hitzik esanguratsuenak indartu egiten ditu. • Ondo ahoskatu du. • Keinuak eta gorputz jarrera egokiak ditu • Lagungarri moduan beste baliabide batzuk erabili ditu. • Adibideak eman ditu, azalpenak, pasadizoak kontatu... entzuleekiko inplikazioa lortzeko • Besterik? • 		
---------------------------	--	--	--

16. Jarduera: Jendaurrean azaltzen

Jendaurrean arituko dira azkenik! Aurreko jardueran talde txikian egin dute praktika alditxoak, eta azalpenean zaindu beharrekoak zehaztu eta baloratu egin dituzte. Dagoeneko prest daude ikaskideen aurrean aritzeko. Bestalde, kontuan hartu nolako baliabide osagarriak erabiltzen dituzten azalpena argia eta zehatza izan dadin (fotokopiak, diapositibak...) .

Aurreko jarduerako kontrol-zerrenda erabili ebaluazio txantilo gisa. Ikasleek, berriz, 14. jardueran prestatu duten hezurdura erabiliko dute entzuten dituzten datu esanguratsuak jasotzeko.

Ikasgelako ikasleek azalpena entzun ahala, ikaskideek prestatu duten eskeman falta diren edo guztiz osatu barik dauden datuak idatziko dituzte eta horrela, ahozko euskal literaturari buruzko informazioa ahalik eta modurik zehatzenean jasoko. Halaber, galderak egin eta azalpen osagarriak ere eska ditzakete.



17. Jarduera: Ondo jaso ditugu entzundako datuak?

Ikasleek txantiloietan jaso dituzten datuak zuzenak diren ala ez egiaztatuko dute jarduera honetan. Talde handian bilduta, ikasleek prestatutako azalpenaren hezurduraren zuzenketa egingo duzue denon artean. Ikasleek 14. jardueran emaniko azalpenaren testua bera erabiliko da zuzenketa hori burutzeko. Irakasleak bideratuko du jarduera hau.

Ondoren, ikasleek eskema guztiak zuzendutakoan, bildu egingo dituzte eta bakoitzak ahozko euskal literaturari buruzko ikuspegi orokorra, ikaskideek azaldua, izango du eskuartean. Zertarako? Ebaluazio gisa egingo zaien galdetegiari erantzuteko

*Unitate honek bete nahi izan dituen helburuak asko izan dira: euskal literaturaz gozatzea, euskal literaturaz gehiago jakitea eta ahozko azalpen ona egitea .
Helburu asko eta denak garrantzitsuak, hirurak lortu ditugu?*

